

Karkara

karkara.eus

 Orioko eta Aiako aldirakaria · 2015eko maiatzaren 15a · Hauteskunde bezperako zenbaki berezia, 26. urtea



Herriaren norabidea herritarren erabakia

Hauteskunde bezperako mahai-inguruan, amaitzear dagoen legealdia gogora ekarri eta datorrenaren inguruan hausnartu dute.

7

Erreportaje grafikoa
Atzera begirakoa

13

Iritzia
Mirari Arriola

18

Zerrendak
Aia eta Orio

33

Iritzia
Eñaut Martí



PSE-EE
PSOE



VOTA
BOTOA
EMAN



**Beste
aukera**

Orio

Ana Priede

CABEZA DE LISTA ZERRENDABURUA

Irma Domingorena

SEGUNDA BIBARRENA

socialistasguipuzcoanos.com



UDAL
HAUTESKUNDEAK
ZENBAKI BEREZIA

Karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

Kultur etxea

20810 Orio

943 83 15 27

karkara@karkara.com

www.karkara.com

Editorea

Karkara taldea
kultur elkarte

Zuzendaria

Lore Berasalzu

Erredaktore burua

Miriam Garcia

Erredakzio taldea

Onintza Aiestaran,
Olatz Artola,
Iñigo Exposito,
Jon Garate,
Elizabete Manterola
eta Rikardo Uzkudun

Publizitatea

Idurre Telleria

Ale honetako kolaboratzaileak

Mirari Arriola,
Jakes Goikoetxea
Eñaut Marti
eta Igor Salsamendi

Diseinua

Saioa Perona

Banatzaileak

Rodolfo Jimenez eta
Leire Zinkunegi (Orio)
Eli Irureta (Aia)

Inprimategia

Gertu Koop. E. (Oñati)
Lege gordailua SS-346/90
ISSN 1132-1105
Tirada 3.200 ale

KARKARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota iritzien erantzukizunik. KARKARAN argitaratutakoa berremán daiteke, osorik edo zatika, baldin eta iturria aipatzen bada.



LAGUNTZAILEAK



Aiako Udala



Orioko Udala



Eusko Jaurlaritza
Kultura Sailak
diruz lagundutako
hedabidea



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Orioko Kutxaren sukurtsala. KARKARA

HASI BERTSOTAN

IGOR SALSAMENDI (DOINUA: ITURENGO AROTZA)

Ze nazka ematen dun

1

Zer nazka ematen dun Kutxara jutak nahiz bate kulrik ez dun don neska gaztiak edozertarako pegak trabak ta aitzakiak *tarjetakin egingo dituzu guztiak.*

2

Udal zerga patzeko zatoz lehenago dirua ateratzeko mila traba dago bezero ote naizen ez daukat hain klaro bihurtu nahi gaituzte txiparen esklabo.

3

Bezeroa moldatuz enpresan nahiera lehiatila bakarra nahi zuten gainera. Gestioak lehiatilan iteko aukera ez badaukat zoazte popatik hartzera.

Publizitatea kontratatzeko:

Karkara

688 859 682 (Idurre)

karkara@karkara.com



karkara.eus



1966an jaiotakoen afaria

Maiatzaren 30ean 1966an jaiotakoen kintako afaria antolatu dute. Galerna jatetxean izango da. Joan nahi duenak Kaleta Pizzerian eman behar du izena maiatzaren 28a baino lehen. Mila esker. ■ **1966an jaiotakoak.**

Zaldua eta Motondo

Orioko EAJk alkate izateko aurkeztu duen hautagaiak, Zaldua jaunak, elkarriketa eman dio Hitza egunkariari eta seko harrituta geratu naiz Motondori buruz proposatzen dituenak irakurritu. Proposamen horiek EAJrenak direla ulertzen dut.

Hasteko eta behin, badirudi EAJren hautagaia oso pozik dagoela Orioko hondartzaren egoera penagarriarekin —hondartza esaten diot, elkar uler dezagun—. Oriotar eta aiar gehienak ez gara dagoeneko Orioko hondartzara joaten eta, horren partez, Zarautza ihes egiten dugu, Antilla inguruan egin diren eta EAJk bularra puztuta defendatzen dituen urbanizazio obrek leku arriskutsu eta deserosoa bihurtu dute lako gure hondartza.

Bestalde, Zaldua jaunak gestio erdugarri gisa aurkezten du Motondoko lurren erosketa Udalaren aldetik, eta hori benetan ulertezina da. Motondoko lurra erosiz —Foru Diputatu ohi eta EAJko kide bati erosi ere, dena esateko—, Udalak xahutu egin zuen Orioko hondartza inguruak txikituz irabazitako dirua. Motondo, ordurako, Batasunaren Intereseko Toki gisa —LIC, gaztelaniaz— katalogatuta zegoen eta, beraz, garbi zegoen han ez zegoela ezer eraikitzeo aukerarik. Hortaz, askoz merkeago ordaindu behar zen metro koadroa, erostekotan; eta, betiere, ingurua kontserbatzeko helburuarekin. Operazio hura gestio ezin txarrago baten adibidea da, oso onbera izanda.

Garbi utzi behar da Orioko Udalak oso gutxi daukala esateko Motondoren etorkizunari buruz, ez orain, ez hemendik 30 urtera eta ez gero. Motondoko lurra Udalarenak badira ere, inguru hori babestuta dauka Europar Batasunak —Kontserbazio Bereziko

Gutunerako oharra

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARA bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.com edo gure lokalera eskura ekarri (Orioko edo Aiako Kultur Etxean) edo postaz bidali. KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina, beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta norbait horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio. KARKARA bere egiten du eskutizak laburtzeko eskubidea.

Eremua da, ZEC, gaztelaniaz— eta Europak zehazten du zertarako erabil daitekeen. Motondoren kasuan, legez, baimendutako erabilera bakarra padura berreskuratzea da. Edo zer daukagu, ba, hemen? Alkategai *Varoufakis* bat, uste duena bere herrian nahi duen guttia egin dezakeela, bere kasa, inori konturik errenditu behar izan gabe? Orioko naturguneak ia guztiz galduta daude gaur egun, horrenbeste urtetako gestio predatzailearen ondoren; baina, zorienez, Europar Batasunak babestuta dauzka herritarroi geratzen zaizkigun gune gutxi horiek, eta EAJk hobe luke lehenbailehen hori onartzea eta herri-tarrak engainatzen ez segitzea. Gainera, batzuk prest gaude Bruselara jotzeko, Kontserbazio Bereziko Eremu baten kontra egindako edozein atentatu salatzeke. Esate baterako, Txingudiko Kontserbazio Bereziko Eremuan dauden kirol instalazioak 2019rako handik kentzen ez badira, Europak isuna ordainaraziko dio Espainiako erresumari. Orioko udal talde batzuek erabateko ezjakintasuna erakutsi dute Orio ibaiaren Kontserbazio Bereziko Eremuari buruz —Orainek kontu honetan sortu dituen etengabeko blokeoei buruz ari naiz—; baina gai hau serioa da eta komeni da Txingudiko adibideari erreparatzea: auzoko etxean garra ikusten bazu, hasi zurean ura biltzen.

Azkenik, Zaldua jaunak Hitzaren elkarrizketan nekazaritzari egiten diz-

kion laudorioak oso erromantikoak dira, XIX. mendekoak ematen dute; baina garbi erakusten dute EAJren alkategaiak ez dakiela ezer Gipuzkoako lehen sektoreari buruz ere. ■ **Hector Gonzalez Arcelus.**

Ongizate kezkei zehaztasunak eta azalpenak

Joan zen asteko ostegunean, maiatzaren 7an, Kultur Etxean egin zen mahai-inguruan ongizate gaiarekin oso kezkatuta ikusi genituen EHBilduko zerrandan doan pertsona bat eta lan taldean dagoen beste bat. Hain gaizki ikusten bazuten gaia, galdera da zergatik ez dituzten ekarpenak lehenago egin, jakinda Ongizate batzordean EHBilduk partaide zuzena duenez, azalpen guztiak jasotzeko eskubidea duela.

Aurreko zehaztasuna hor utzita, orokorrean ez ginen emandako erantzunarekin gustura geratu eta ondoren datoz lau urte hauetan ongizatean egindakoaren zehaztasunak eta azalpenak.

Orion ez dira diru laguntza zuzenak ematen, horretarako sinatu genuen hitzarmena Caritasekin, legezko diru laguntzetatik kanpo geratzen ziren pertsonen laguntza emateko. Kopurua arduradunarekin kontrastatua dago eta ez duela gehiagoren beharrik esanda dauka.

RGI, AGI eta PCV Lanbidetik bideratzen dira. AESA, berriz, Ongizateatik zuzenean.

Etxez etxeko laguntzan ere, asignatua dugun ordu kopuruaren topera ere ez gara iristen. Orion 4 urte hauetan ez da inor laguntzarik gabe geratu.

Berdintasun Plana egin da eta, esan zen bezala, herriko eragile baten bultzadaren faltan gaude.

Orio lagunkoia egitasmoa babestu, sinatu eta komunitate horren parte da gure herria. Hemendik jaso zen Dikeko kirol-parkea margotzeko eskaria eta beharra.

Berdinduz egitasmoa ere babestu eta bultzatu da, Udalak 8.000 euro jarriko ditu. Formatutako boluntario sare bat sortuko du. Beharrezkoa den zerbait da, inongo erakundek kargu hartzen ez

duena. Orio, bere kabuz, konponbidea ematen saiatuko da.

Oporrak bakean proiektuaren barruan urteetan etorri ziren herrira ume saharar pila. Hori berreskuratze-ko eredu berria babestu dugu, aste tartean pisu tutelatu batean egonaz eta asteburuetan familietan.

Arremanitz elkartearekin ere *Harremonak* proiektua jarri dugu martxan.

Eta orain, *Beldur Barik* kanpaina jarraituz, eta Orioko Berdintasun Planeko ekintza bati erantzunez, proposamen bat jarriko dugu mahai gainean.

Adineko pertsonen inguruan Eguneko Zentroan, nahiz eta Udalaren eskumena ez izan, hobekuntzak bultzatu ditugu. Osakidetzan ate automatikoa jartzeko negoziatzen ari gara eta lortuko dugulakoan gaude.

Zaharren babeslekuarekin bilera ugari egin ditugu eta horien emaitza dira tabernan egindako hobekuntza guztiak, azkena taberna margotzea –larunbatean bertan ireki zen–, udal-tertxeko baranda berria irisgarritasuna hobetzeko, AKTIBATU programa, monitore batek dinamizatuz taldean ariketak egiteko aukera.

Langileriaren inguruan, legealdi berriaren pertsona bat jubilatuko denez ordezkapena nola egin eta zein perfilekin erabaki beharko da. Honek bai edo bai Orioko ongizatearen aldaketa ekarriko du. ■ **Miriam Uranga.** Orain plataforma

Orioko hondarraren arazoa

Hondartzaren egoera penagarriarekin kezkatuta, herriko alderdi politikoen gana jo genuen orain dela lau urte, hauteskundeetan aurretik. Udalean ordezkaritza zuten alderdi guztiakin egin genituen bilerak, banan-banan.

Hondartzan gertatzen ari zenari buruzko gure ikuspegia eman genien, haien iritziak entzun genituen, eta, amaieran, bakoitzak izan genitzakeen iritzi eta zalantzak argitzeko, hondartzaren egoerari buruzko ikerketa zientifikoa eskatu genien. Borondate ona erakutsi ziguten denek.

Hondartzaren egoera honakoa da, labur azalduta: hondar fina galdu du

hondartzak. Hondarra oso lodia denez, aldapa handia egiten da ur izkinan eta, ondorioz, ia ez dago alderik itsasgoraren eta itsasbeheraren artean, eta gorago edo beheago, baina aldapan dago beti ur izkina. Aldapa deserosoa da paseatzeko, batez ere adineko pertsonentzat. Olatuak ur izkinean bertan hausten direnez, arriskutsua da uretan sartu eta ateratzeko, batez ere haurrentzat. Itsasoak urtean oso egun gutxitan gaintzen du aldapa, eta ondorioz, hondar lodiz eta harritxo ez ezik, hautsez beteta dago hondartza, zikin kalitate oso eskaseko hondartza dugu herrian oraintxe bertan. Bizitza kalitatean galdu dugu hondartzara joatea gustatzen zaigun oriotarrok; eta gainera, turistak ekartzeko erakargarritasuna ere galdu du hondartzak, herriaren aktibitate ekonomikoa kalte-tuz.

Asko mugitu gara azken lau urteotan: bilerak Ingurumen Ministerioko Kosta Zuzendaritzarekin, bilerak Eusko Jaurlaritzako Portu Zuzendaritzarekin, bilerak Southamptoneko (Erresuma Batuko) unibertsitateko aditu batekin, bilerak Bizkaiko beste aditu batekin... Eta Euskal Herriko Unibertsitateko bi adituk ikerketa egin zuten azkenean, Udalak diruz lagunduta.

Ikerketa zientifikoak erakusten duenez, Orioko hondartzan nabarmen lodi da hondarra azken urteotan, eta horrek eragin zuzena du hondartzaren profil aldaketan. Bi dira egoera horren kausa edo zergatiak, ikerketaren arabera: kanpoko barra, batetik, eta draga, bestetik.

Kanpoko barrak erabat aldatu du itsasadarreko eta hondartzako hondar sistema. Iparmendebaldetik datorren korrante nagusiak ezin du hondarra lehen bezain erraz ekarri hondartzara, eta kanpoko barra dela eta, hondarrak ezin du sartu, ezta ere, ibaian gora Oribarzar hondartzaraino. Bestetik, joan-etorri errazik ez duen halako hondar sistema ahulean, lehen baino kalte handiagoa egiten du bertatik hondarra ateratzeko. Are gehiago, noski, ateratzen dena hondar fina baldin bada, beti egin ohi duten bezala.

Ingurumen Ministerioko Kosta Zu-

zendaritzakoak oso haserre eta kezkatuta daude Orion gertatzen ari denarekin, eta salaketa jarri diete hondarra ateratzen dutenei, “kosta legea urratzeagatik”. Bestetik, Eusko Jaurlaritzako Portu Zuzendaritzak emana zien baimena kendu egin die. Epaimahaie-tan dago auzia, eta auskalo zenbat luzatuko den kontua. Bitartean, gainbehera jarraitzen du hondartzak.

Kanpoko barrak uste zena baino kalte handiagoa egin dio hondartzari. “Ingurumenaren gaineko inpaktuaren txostenak” aurreikusitako zituena baino ondorio gehiago eta okerragoak ekarri ditu, eta, hori dela eta, neurri konpentsatzaile edo leungarriak eskatzeko egoeran dago Orio. Hurrengo urtetarako beste lan ildo bat dago hor.

Horregatik guztiagatik, Ingurumen Fiskaltzak gaia sakon aztertu dezan eskatu dugu udalean, behar diren ekintzak ezarri ditzan eta Orioko hondartzaren egoerak hobera egin dezan.

Eta aurrerantzean ere, hauteskundeetan emaitzak dena delakoak izanda ere, Udalean ordezkaritza izango duten alderdi politikoa guztiak eskatuko diegu Orioko hondarraren arazoa konpontzeko erantzukizunez jokatu dezatela. Berdina egingo dugu noski bai Ingurumen Ministerioko Kosta Zuzendaritzan bai Eusko Jaurlaritzako Portu Zuzendaritzan eta bai beharrezkoa izango den edozein tokitan.

Pentsaera oso ezberdinetako jendea baitago gure taldeetan, baina guztiok nahi dugulako hondartza sano bat, oriotar gehien-gehienek bezala. ■ **Herri natur taldea eta Orioko Surf Taldea.**

1943an jaiotako enafaria

Urtero bezala, 1943an jaiotakoek lagun arteko bazkaria egingo dute. Aurten 34 urte beteko dira bazkaria antolatzen hasi zirenetik.

Bazkaria ekainaren 6an egingo dute, larunbatekin. 14:00etan izango da Hondartzako Galerna jatetxean. Ordu erdi bat lehenago, juntatuko dira plazan, 13:30ean. Izena emateko, Fernando Larrañagari deitu behar zaio (943 832 666) maiatzaren bukaera baino lehen. ■ **1943an jaiotakoak.**



Jon Redondo Beñat Solaberrieta alkateari testigua ematen . KARKARA



Herritarrek botoak kontaktzen 2011ko hauteskundeetan. KARKARA



Hasi da hauteskunde kanpaina. KARKARA

Legealdi bat, lau urte

“Zerrendak gertu daude, prest. Orain herriak du hitza, botoa eta erabakia”

Igaro dira lau urte. Pasa da legealdia. Berrikuntzak izan dituen legegintzaldia izan da. Politika egiteko hiru modu. Hiru alderdik hartu zuten Udala: ohiko politikagintzari bira bat emateko asmoarekin sortutako herri plataformak, Orion ondo errotutako alderdi jeltzaleak eta ezkerreko hainbat talde bilduta jaiotako alderdiak.

EAJk sei eserleku lortu zituen, sei zinegotzi; Orioko EH Bilduk, bost, eta Orain plataformak, bi. Lau urtez politika egin ostean, orain, berriz ere, herritarren esku geldituko dira Udaleko hamahiru eserlekuak.

Hiru alderdi izan dira azken lau urteetan gobernuan, eta bost dira udal hauteskundeetara aurkeztuko direnak: PSE, PP, EAJ, EH Bildu eta Orain.

Aiako udal gobernu, berriz, hamaika zinegotzik osatzen dute eta azken legealdi honetan, 2011-2015 urtealdian, EAJko seik eta EH Bilduko bostek osatu dute.

Datozen hauteskundeetara bi ez, hiru alderdi aurkeztuko dira, 2011n bezalaxe: EAJ, EH Bildu eta PSE. Ikusteko dago oraingo honetan zeinen artean banatu beharko dituzten udaleko eserlekuak.

Izan ere, oraindik, guztia erabakitzeko dago. Iritsi dira etxeetara panfletoak, berripaperak eta aldizkariak. Iritsi dira etxeetara bozka-paperak eta gutun-azalak. Baina itxita daude oraindik kutzak. Zenbaketa ez da hasi. Paper guztiak zenbatutakoan ikusiko da nortzuk izango diren ate joka dugun legealdian agintean egongo direnak; nor izango den alkategaia, nortzuk osatuko duten Udala.

Zerrendak gertu daude. Zerrendaburuak alkate izateko gogotsu daude. Herriak du hitza orain. Herriak du botoa. Herritarrek hartuko dute erabakia.



Atzera begirakoa: politikaren bilakaera, pausoz pauso


Azken bost legealdietan Aiako eta Orioko Udaletan ibili diren alderdien irakurketa egiteak **politikak izandako bilakaera** ezagutzeko ere balio dezake. 1995 urtera egin dugu salto, eta pausoka pausoka 2015era iritsi gara.



1995-1999




1999-2003



2003-2007



2007-2011



Beñat Solaberrieta - EH Bildu



Noemi Ostolaza - EAJ



Jon Redondo - EAJ



Jon Agirresarobe - EH Bildu



Ekñe Saizar - EH Bildu



Angel Del Hoyo - EAJ



Bixente Lasa - EH Bildu

2011-2015



Lourdes Salsamendi - EAJ



Amaia Dorransoro - EH Bildu



Eugenio Cotado - EAJ



Miriam Uranga - Orain



Elena Etxeberria - EAJ



Jose Angel Iparragirre - Orain



Beñat Solaberrieta - EH Bildu

Informatika ingeniari teknikoa eta irakasle-ikasketetan lizentziatua. 2011ko hauteskundeetan aurkeztu zen lehen aldiz eta alkate aukeratu zuten. Azken hau izan da bere lehen legealdia alkate eta, printzipioz, baita azkena ere.



Miriam Uranga - Orain


Zuzenbide ikasketak ditu eta ekonomian diplomatua da. Lehen legealdia izan du hau udalean eta, baita, bere taldearena ere. Alkateorde izan da azken lau urteetan eta, berriz, aurkeztu du bere burua alkatetzarako.



1995-1999



1999-2003



2003-2007



2007-2011



Igor Iturain - EAJ



Mª Jesus Arruabarrena - EAJ



Aritz Arruti -EH Bildu



Aitzpea Elgarresta - EH Bildu



Asier Ibarren
EAJ



Idoia Iribar - EAJ



Asier Egaña - EH Bildu

2011-2015



Arkaitz Iruretagoiena - EAJ



Amaia Guruzeta - EH Bildu



Ander Arrillaga - EAJ



Mikel Zulaika - EH Bildu



Igor Iturain - EAJ

Hiru legealdi, hau da, hamabi urte egin ditu Aiako Udalaren gidaritzan. Bbestea alkatagai bati erreleboa emateko garaia dela esan du orain. Hala eta guztiz ere, EAJ-ko zerrendan aurkeztuko da berriz.



Mª Jesus Arruabarrena - EAJ

Udalgintzan hamabi urte bete ditu Maria Jesus Arruabarrenak, Igor Iturainek bezala. Elkarrekin hasi ziren biak politikan. Amaitzear dagoen legegintzaldian alkateordea izan da. Orain zazpigarrena da EAJko zerrendan.



Karkara

karkara.eus



**ZAUDEN
LEKUAN
ZAUDELA**

Generoa Orion



Mirari Arriola

Genero ezberdintasunak ez ditu soilik emakumeak zapaltzen, gizon zuri, heterosexual, indartsu eta boteresu ez diren guztiak baizik.

Nauteskundeak badatoz, baita legealdiaren hausnarketa egin eta ondorengoetarako eskaerak egiteko garaia ere. Azken aldian genero gaiekin bereziki sentsibilizatua nago. Udalak martxan du Berdintasuneko I. plana, eta orain arte egin ez dudanez, udalarentzat eta herritarrontzat nire ekarpenakegin nahi nituzke, berandu izan aurretik, indarraldia amaitu baino lehen, bigarren puntuaren inguruan: balio aldaketa eta emakumeen ahalduntzea Orion.

Genero ezberdintasunak ez ditu soilik emakumeak zapaltzen, gizon zuri, heterosexual, indartsu eta boteretsu ez diren guztiak baizik; beraz, matxismoak eta patriarkatuak gizonezko asko ere kaltetzen ditu. Orion entzun izan dut *matxista ez naizenez, ez naiz, feminista izango, feminista izatea gizonen kontra joatea delako*. Oraindik ere ez dakigu, feminismoa genero berdintasuna bilatzen duen mugimendua dela, eta eredu matxistatik aldentu nahi duen pertsona denentzat dela onuragarria. Hor, lehen erroka, inongo konplexurik gabe, garen generokoak garela ere, feminismoaren onurak zabaltzea.

Bigarren erroka, legealdi askotakoa ziuurrenik: Orion arrunta pertsonak maitatzea izatea, generoari erreparatu gabe, inork armairutik atera beharrik ez izatea. Horren harira, galdera hauek otu zaizkit: homosexualak jasaten al dituzte eraso homofoboak, herrian? Aske al dira Orion homosexualak, bisexualak edo transexualak? Gizonezkoen kasuan, arraro sentitu beharrik gabe egin al dezakete, Mirotzak taldean arraun, futbitoan edo Orioko gizonen futbol taldean aritu? Eta horiek etorkinak balira? Legealdi honetan emakumeak kultur etxeko antzerkietan eta festetan oholta gainean ikusi ditugu, bestean gozamenerako, eta kontzienteki, hala erabaki zelako. Dena den, oraindik badago egitekoa, esaterako gizonezko federatu gehiago ditugu herrian, kirol probetan gizonezko gehiago ikusten ditugu eta emakumezkoak oraindik ere, kanpotik txalotzen geratzen gara. Hirugarren erroka: emakumeok ere kaleak hartzea, txalo egitetik txalotuak izateko ekintzak sustatzea. Horiek nire lehen ekarpenak, baina amaitzeko, herritarron beharrezko parte-hartzea eskatu nahi nuke. Sortu dezagun talde eragile bat, gai honi adarretatik eutsi, eta besteak beste, duela hilabete batzuk gertatu zen eraso sexistarik berriz egongo ez dela bermatuko duena. Sor dezagun Orio berdinzalea.



Olatz Artola

Alkategaiei hamar eskaera



Alkategai izango direnei hainbat eskaera egin zizkien Iban Arantzabal Goienako zuzendaria, eta bat egiten dut berakeskatutakoarekin. Zerrendatik niretzat garrantzitsuenak diren hamar puntuak hautatu ditut:

1. Euskaraz egitea. Ez euskararen gaineko diskurtsoak idaztea, egitea. Ahalik eta gehien. Blindatu euskararen gaia eta atera zuen liskarretatik.
2. Euskal hedabideok preferentziaz tratatu. Euskaltzaleokin begirunea izateaz gain zuen politiken bidez lagundu.
3. Erantzun galderei. Ez erantzun nahi duzuen eta listo, zehatz erantzun.
4. Norbere proiektua garbi azaltzea. Indarra norberarenean jarriz gainontzekoen *akatsetan* jarri ordez.
5. Erakustea zein herri-programa duten, ez bakarrik zein alderdi-programa. Gutxien dutenenganako lerroak idatzi itzazue programetan.
6. Eskaerak egitea zail dutenen ahots-mutuak interpreta itzazue: Umeei kasu egin, 80 urtetik gorakoei, gaixo daudenei...
7. Entzun gainontzeko alderdiek diotena. Eta bereziki entzun herritarrak.
8. Alderdiari kasu egin bai, men ez. Alkateek herritarrak dituzte bezero. Denak.
9. Ez izan kudeatzaile huts, ez izan kolega, ez izan... izan politikari. Duindu politika.
10. Herrian pentsatu eta begiratu ondoko herrira ere.



KARKARA

“Gobernatzeko printzipio etiko batzuk jarri nahi ditugu”

Eñaut Guruzeaga

Aiako EH Bilduko alkategaia

Herritarrekin eta herritarrentzat egin nahi dute politika Aiako EH Bildun. Herritarrak izango dira beren politikagintzaren ardatza, eta errespetutik eta elkarlanean Aia hobeko bat egitea dute helburu.

OLATZARTOLA

Lanbidez administraria da Eñaut Guruzeaga –Aia, 1989-. Orain artean zinegotzi izan ez den arren, EH Bilduko udal taldean jardun da lanean azken legegintzaldian.

Zer egin da ondo eta zer gaizki bukatzearen legegintzaldian?

Azken lau urte hauetan, hasteko, ezer gutxi egin da. Lau urte igaro dira eta herria ez da aldatu, ez dugu aurrera egin. Egin den gutxi hori, azken momentuan, presaka, gaizki eta jendeari bizkarra emanez egin da, Elkanoko frontoia eta eskola kasu. Elkanoko lurren jabeak epaitegietara jo du, obrak egiten hasi baitira eta Zarauzko lurak hartzen baititu, adostu ez bezala. Eta, eskolaren kasuan, inoren ekarpenik gabe ari dira egiten eta bigarren solairuan ikasgelak egingo dituztela ziurtatu gabe.

2011n hitza eman zuen –alkateak– auzoetara gerturatuko zela eta parte hartzea sustatuko zuela, baina hitza ez du bete. Herritarren hitza ez da errespetatu, ezta Bildurena ere. Aia Lantzenen, adibidez, estatutuak aldatu zituzten hauteskunde biharamunean, boto bat gehiago izateko. Horrez gain, bozkatzeko informatuta egon beharra dago eta ez digute informazioa garaiz eman gaian jantzi ahal izateko. Askotan abstenitu egin behar izan dugu, ez baikenekien zer ari ginen bozkatzeko. Gu beti sentitu izan gara behin eta berriz paretaren kontra jotzen ari ginela, berak boto bat gehiago izateaz gain, ez digutelako hitza errespetatu.

Zer emango diozu lehentasuna datorren legegintzaldian?

Gobernatzeko gutxieneko printzipio etiko batzuk jarri nahi ditugu: erabateko gardentasuna, herritarrak informatzea oinarritzeko eskubidea baita, alkatearen soldata –astakeria dena egun– murriztu egin behar da. Herritarren hitza entzun nahi dugu eta udaletxera hurbildu. Berak bete ez zuen hitza bete nahi dugu. Horrez gain, frackingan kontrako jarrera irmoa daukagu eta programako proposamenak lehenesten ditugu.

Zer eskaintzen dio zure alderdiak Aiari besteek ez dutena?

EAJkoek Aian beren *txiringitoa* balitz bezala gobernatu dute; oso gobernu indibidualista eta despota da. Hortaz, guk eskaintzen duguna gobernatzeko modu berri bat da. EH Bildu ez da pertsona bat, ez naiz ni; EH Bildu herritarrez osatutako pertsona talde bat da. Uneoro harremanetan egon nahi dugu herritarrekin proposamenak, kexak eta abar jasotzeko.

Nola egin nahi duzue lan herritarrekin kontuan hartuta Aiak auzo asko dituela?

Herri programa auzokako parte hartzearekin osatu genuen. Programan jarritako proposamenen artean erregularitasuna dago, hau da, gutxienez hiru hilabetez behin auzo guztiak bisitatuko ditugu. Auzoetan batzar irekiak egingo ditugu, baina iritzia ematea kostatzen zaienentzat buzoiak ere jarriko ditugu. Aurpegia eman nahi ez dutenek, modu anonimoz iritzia buzoian bota dezakete.



SINADURA

“Jarraipena eman nahi diogu egiten ari garen lanari”

Nekane Arrizabalaga

Aiako EAJko alkategaia, independentea

Agenda betea eduki arren, konpromisoa hartu du herritarren eta herriaren onurarako lan egiteko. Independente gisa aurkeztu arren, EAJren babesa du. Talde kohesionatua osatzen dutela dio.

OLATZARTOLA

Gipuzkoako Foru Aldundian ibili da lanean eta orain desafio berri baten aurrean dago, alkate izatera pausoa eman nahi du Nekane Arrizabalagak –Aia, 1972–.

Zer dela eta aurkeztu zara independente moduan?

Aurreko legealdian ere idenpendiente aurkeztu nintzen. Beren lan egiteko moduarekin eta ekintzekin bat nator, berengandik gertu sentitzen naiz. Beren babesa sentitzen dut.

Aurreko legealditik zer da ondo eta gaizki egin dena?

Proiekturik garrantzitsuenak gauzatzea zen gure helburua, eta martxan daude jada. Eskolaz eta Elkano auzoko frontoiaz ari naiz. Inbertsio potenteena eskatzen zuten proiektuak ziren. Eskolaren proiektuarekin urte asko daramatza lanean, eta, azkenean, herritarrekin eta eskolako lankide eta erabiltzaileekin elkarlanean, martxan jarri dugu. Ilusio handiarekin gaude.

Bi proiektu horietan jarri dugu fokua, herritarrek ahaztu gabe. Beren eguneroko beharrak ikusi eta horiei erantzuna ematen ere ahalegindu gara.

Zerk izango du lehentasuna datorren legealdian?

Ildo beretik jarraituko dugu. Lanerako gogoarekin eta ilusioarekin dagoen lan taldea osatzen dugu, oso konprometitua. Herritarrek bizitza duina izan dezaten konpromiso osoz egingo dugu lan.

Aurreko legealditik gatoz, hortaz, martxa hartuta daukagu

eta ez dugu gelditu nahi. Gatozen bidetik jarraitu nahi dugu, gure lan egiteko modua eraginkorra iruditzen baitzaigu, eta herritarren nahiak eta beharrak asetzen segi nahi baitugu.

Zer du zuen alderdiak besteek ez dutena?

Ez dugu besteengan pentsatzen, guk Aia herrian pentsatzen dugu. Gure lanean zentratu nahi dugu. Udaletxeko dinamikan sartuta gaude eta jarraipena eman nahi diogu egiten ari garen lanari legealdi honetan.

Herritarrekin egongo gara, orain arte bezala, berekin elkarlanean egiten baitugu lan. kontaktu hori izaten jarraituko dugu.

Aiak auzo ugari ditu. Aipatu duzun elkarlana nola gauzatuko duzue?

Orain arte egin dugun moduan. Bilerak egingo ditugu auzoetan, eta bilera horiek beharren arabera maiztasuna izango dute. Bileretan beren ekarpenak entzuten ditugu eta guk, eskaini dezakeguna azaltzen diegu. Hartu-eman horretatik proiektuak jaiotzen dira. Proiektu horiek forma hartzeko bilera gehiago egiten ditugu. Batzuetan auzoan eta beste batzuetan udaletxean.

Auzotarrek eskertu egiten dute bilerak egitea, kontuan hartzen dituzula ikusten baitute. Guztioi gustatzen zaigu entzunak izatea eta guri, entzutea egokitzen zaigu, herriak zer behar duen jakin nahi baitugu.



ORAIN

orioko aukera independentea

1. Miriam Goena
2. Jon Ander Etxepare
3. Jonn Bego Aizcoran
4. Edoia Erceberria
5. Aitz Agirretxe
6. Andoni Fernandez
7. Iñigo Aizcor
8. Zaitzu Criado
9. Asier Lasarte
10. Celso Balsegarek
11. Egoia Mari Aduriz
12. Jon Jonba Otazgi
13. Ander Tuñes



Datozen lau urteei begira lanerako gogoz jarraitzen dugu. Orio hobetzeko nahia dugu, horretarako sortu baitzen ORAIN.

Badago zer hobetua eta badaukagu zer hobetu. Zuen indarrarekin hori da gure erronka. Oriotarrak izan dira eta izango gure lehentasuna.

Maiatzaren 24ko aukeran aukera ematen badiguzu guk lanean jarraituko dugu. Lehen, ORAIN eta akaso gero. Zure esku dago bai botua ematea eta baita Orio hobetzen parte hartzea, denon onerako.

**oriotarron garaia da
orain duzu aukera**

orainorio@gmail.com - twitter: @orainorio - Facebook: Orain Orio - Orain, 100 posta kutxatilla, 20810 Orio

Mahaiaren ingurukoez

Mahai-ingurua bukatutakoan, sentsazio bat: mahai inguruaren formatua dinamikoena ez izanagatik ere, merezi duela antzeko zerbait errepikatzea, ez lau urtean behin bakarrik.

Nasi da hauteskunde kanpaina. Bukatu da KARKARAK antolatutako mahai-ingurua. Hautagaiek azaldu eta argitu ahal izan dituzte erabakitakoak, egindakoak eta egiteko dituztenak. Nahi baino denbora eta patxada gutxiagoz, seguru; baina erabaki, ekintza eta proposamen garantzitsuenak azaltzeko moduan. Denboraren muga es-tua izan dute hasieran; baina baita etxean, taldean edo alderdian prestatutako apunteen segurtasun sarea ere. Batzuetan azalpenak motz geratu dira, eta ez denbora faltagatik.

Sorpresa gutxi izan dira mahai-inguruan. Proposamenak bai. Gehienak aurreko legegintzaldian edo duela bi legegintzaldi jada aipatutakoak edo zintzilik geratutakoak, ordea. Nabarmenezkoa da hautagaien arteko giroa eta elkarrekin izan dituzten elkarriketen eta eztabaiden tonua. Errespetuzkoa eta lasaia. Baita jendearen galderetan eta hautagaien erantzunetan ere. Nekez lortuko dute boto berriren bat kultur etxean esandakoarekin. Alderdiekin edo plataformekin lotura duten pertsonak izan dira entzuleetako asko.

Jendea elkartu da mahai-inguruan. Ez duela lau urte bezainbeste. Udalak Ikastolarekin sinatu behar zuen hitzarmenaren auziak bete zuen orduan kultur etxeko areto nagusia. Aulki huts batzuk izan dira aurten.

Hauteskunde kanpainak ez du askoz gehiagorako emango herrian: eguzkiak eta euriak koloregalduko dituzten kartel ikusezinak; mitin itxurako ekitaldiren bat; esku orrien banaketa kalean; etxez etxeko bisitaren bat agian; zaborrontzira joango den propaganda postontzian; eta etxe giroko edo lagun arteko elkarriketak, batzuen eta besteen merituei, sinesgarritasunari eta hanka sartzei buruz, eman beharreko botoari buruzko zalantzak dituztenen artean batez ere.

Eta mahai-ingurua bukatutakoan, sentsazio bat: mahai inguruaren formatua dinamikoena ez izanagatik ere, merezi duela antzeko zerbait errepikatzea, eta ez lau urtean behin bakarrik. Bi urte barru, agian. Alkatearekin eta oposizioko ordezkariarekin, orain agindutakoaz, ordura arte egindakoaz eta egiteko dutenaz. Kazetariek eta herritarrek zuzenean eta patxadaz galdetu ahal izateko. Udaletxeko eta osoko bilkuretako formalismorik gabe.

Eta, bukatzeko, eskaera bat: maiatzaren 24a eta gero gobernu aldaketa baldin badago, batzuek gobernu uzteko eta besteek agintea hartzeko prozesua lasaia eta eraginkorra izan dadila, herriaren eta herritarren mesedetan. Hauteskundeak dira, ez hauteskundeak.



Jakes Goikoetxea



EAJ

1. Miren Nekane Arrizabalaga Manterola
2. Arkaitz Iruretagoiena Lertxundi
3. Asier Ibaguren Ibaguren
4. Sergio Cubero Belinchon
5. Jon Ander Azpiroz Otegi
6. Igor Iturain Ibaguren
7. Maria Jesus Arruabarrena Esnaola
8. Jose Antonio Idarreta Agirresarobe
9. Miren Idoia Iribar Beldarrain
10. Gemma Orbegozo Aurizenea
11. Ignacio Maria Zuloaga Aldalur



EH Bildu

1. Eñaut Guruzeaga Erasun
2. Maria Concepcion Lazkano Arruti
3. Aitor Arregi Eizagirre
4. Hodeiza Sallen Molinero
5. Joritz Bastarrika Albisu
6. Eñaut Solaguren Maguregui
7. Amaia Maria Guruzeta Aizpurua
8. Aritz Arruti Mintegui
9. Maitane Arrillaga Aldalur
10. Aitzpea Elgarresta Larrarte
11. Ziortza Balerdi Eizmendi

PSE-EE

1. Maria Lourdes Agirrezabala Mundiñano
2. Antonio Lukas Azpeitia
3. Mikel Agirrezabal Iribar
4. Valentin Eloa Azpeitia
5. Juana Urtizberea Lekuona
6. Manuel Venegas Venegas
7. Maria Dolores Romero Cabeza
8. Alfredo Gomez San Jose
9. Maria Ines Cerrato Montecelo
10. Jose Tapia Escriña
11. Consuelo Rodriguez Sanz



EH Bildu

1. Emeterio Iribar Sorazu
2. Amaia Dorronsoro Portularrume
3. Gotzon Igoa Aguirrezabal
4. Amagoia Iribar Mancisidor
5. Juan Vicente Lasa Carricaburu
6. Aizpea Ubegun Manterola
7. Asier Sarasola Uranga
8. Beñat Carrera Esnal
9. Nagore Rementería Argote
10. Gorka Puertas Orbañanos
11. Olatz Olariaga Sarasola
12. Laida Iturralde Larrañaga
13. Jesus Antonio Makazaga Manterola

EAJ

1. Jose Angel Zaldúa Iparragirre
2. Lourdes Salsamendi Goñi
3. Angel Pedro Maria Del Hoyo Bravo
4. Aitziber Campos Morey
5. Eugenio Antonio Cotado Iturain
6. Elixabete Bello Martija
7. Ainhoa Usandizaga Zubiaurre
8. Andoni Torres Fernandez
9. Amaia Aizpurua Atorrasagasti
10. Juan Antonio Manterola Larraza
11. Elixabet Huegun Arruabarrena
12. Txomin Iribar Lete
13. Maria Aranzazu Sarasua Etxeberria



Orain

1. Miriam Uranga Egorza
2. Jose Angel Iparragirre Alberdi
3. Jesus Maria Arriaran Elkorobarrutia
4. Eder Etxeberria Korta
5. Ane Miren Agirrebeña Guereca
6. Andoni Fernandez Ostolaza
7. Iñigo Arruti Agirre
8. Jaime Colado Gutierrez
9. Arantxa Manterola Lertxundi
10. Maria Cristina Salsamendi Ayestaran
11. Luis Maria Aduriz Iruretagoyena
12. Jon Joseba Otaegi Aizpurua
13. Aitziber Indart Telleria

PSE-EE

1. Ana Pride Merchan
2. Irma Domingorena Zapiain
3. Jesus Jose Juan Rodriguez
4. Alberto Aguirrezabal Etxabe
5. Alexis Daniel Vicente Berrondo
6. Ana Isabel Irigoyen Irurita
7. Pablo Sanchez Martín
8. Arrate Dominguez Urtizberea
9. Alejandro Garcia Valcarcel
10. Hermenegildo Villalobos Cortes
11. Mercedes Gomara Hernandez
12. Jesus Maria Moliner Loriente
13. Karmele Correyero Sosa



PP

1. Antonia Ruiperez Ruiz
2. Juan Caparros Sanchez
3. Pilar Ruiperez Ruiz
4. Miguel Salvo Mendibil
5. Pedro Miguel Ruiperez Ruiz
6. Enrique Fajarnes Ribas
7. Santiago Recio Esteban
8. Delmi Oscar Niño De Guzman Ospina
9. Elvira Gutierrez Diego
10. Maria Recio Espinosa
11. Antonio Colino Martinez
12. Myriam Lopez Corbelle
13. Maria Dolores Gonzalez Rodriguez



Zenbatzen hasi aurretik zenbatutako zenbakiak

Lau urte atzera egin eta zenbakitan biribildu dugu 2011ko udal hauteskundeek emandakoa. **Datozen lau urteetarako aurkeztutako taldeak eta proposamenak** ere zenbakitan laburtu ditugu.

TESTUA: OLATZ ARTOLA
ARGAZKIAK: KARKARA

Duela lau urteko giroa guztiz bestelakoa zen. Herritarr batzuk herri plataforma sortu zuten: Orain. EH Bildu azken momentuan onartu zuten legezko zat eta EAJ jo-puntuazio zuten askok. PSE-EE eta PP itzalpean egonagatik ez zeuden gordeta. Tentsioa handia zen.

Boto bakoitzak duen garrantzia

2908 boto eman ziren Orion 2011 urteko udal hauteskundeetan. Boto gehien, eta ondorioz, hautetsi gehien eskuratu zituen alderdia EAJ izan zen. 1268 boto eta 6 hautetsi lortu zituen. Alkatetza, ordea, ez zen Jon Redondorentzat izan.

EH Bilduk eta Orainek bat egin zuten. 1038 eta 395 boto lortu zituzten, hurrenez hurren; 5 eta 2 hautetsi. Koalizio horrek alkate-makila eskuz aldatzea ekarri zuen. Beñat Solaberrieta aukeratu zuten alkate.

Aian ezer gutxi aldatu zen Udalaren argazkia. EAJk jarraitu zuen agintean, nahiz eta Aiako EH Bilduk estutu egin zion alkatetza. 1050 aiarrek bozkatu zuten. 564 herritarrek EAJ-ren alde egin zuten, eta ehun gutxiagok, 463k, EH Bilduren alde.

Bi kasuetan, bai Orion, bai Aian, bozkatu zuten pertsonen kopuruak gora egin zuen. Orion 111 gehiagok bozkatu zuten eta Aian 52k.

Lau urte agintean

2011eko ekainetik aurrera agintaldi berriarekin egin du lan Orioko Udalak. Ordutik, guztira, 30 udalbatzar inguru egin dituzte udaletxeko areto nagusian. Azken urtean, 2015ean, bi bilkura egin dituzte orain arte.

Aian 19 udalbatzar egin dira urte hauetan guztietan, baina, legegintzaldia amaierako hogeigarrena eta azkena egingo dute.



Parametroak aldatu dira

Igaro dira lau urte eta, berriz ere, hauteskunde bezperatan gaude. Alderaezinak dira duela lau urteko eta egungo egoerak; lehia bizi-bizi dago, baina giroa ez dago bero-bero.

Orion bost alderdi aurkeztu dira udal hauteskundeetara: EAJ, Orioko EH Bildu, Orain, PSE-EE eta PP. Aian hiru dira aurkeztu direnak: EAJ, EH Bildu eta PSE-EE.

Alderdiak gaztetuta datoz, oro har. 25 urte inguruko gero eta jende gehiago dago zerrendatan. Zerrendak genero ikuspegitik gero eta orekatuagoak daude. Orion 32 emakume eta 33 gizonezko aurkeztu dira; eta, Aian, 15 emakume eta 18 gizonezko. Eta, zerrendaburuetan ere aniztasuna dago generoan. Aian hiru alkategaietatik bi emakumezkoak dira. Orion hiru emakumezkoak dira eta bi gizonezkoak.

Zenbakiak mahai gainean daude eta herri programak postontzietan. Orain herritarren esku dago gutunazalean baten ala bestearen papera gordetzea.



“Boto kopurua igo egin zen 2011n. Orion 111 gehiagok bozkatu zuten eta Aian 52k”

“Aian hiru alkategaietatik bi emakumezkoak dira. Orion hiru emakumezko eta bi gizonezko”



Lau urtean egindakoa, eta lau urtera begira egitekoa, hizketagai

Maiatzaren 7an egin zen KARKARAK antolatutako eta Jakes Goikoetxeak gidatutako hauteskunde bezperako mahai-ingurua. **Eztabaidaren tonua lasaia eta errespetuzkoa** izan zen eta parte hartzea handia.



Irma Domingorena

Alkatetzarako hautagaiak –Ana Priede– euskara ulertzen eta konfiantzazko giroan hitz egiten duen arren, mahai-inguru batean ez da ziur sentitzen euskaraz hitz egiteko. Hortaz, PSE-EE alderdiaren izenean Irma Domingorenak hitz egin zuen. Orion bizi den zarautzarrak Gipuzkoako Garraio Agintaritzan abokatu lanak egiten ditu eta zinegotzi izan da lau urtean Zarautzen.



Emeterio Iribar

Udaleko lanak ezagutzen ditu Iribarrek. Hamabi urtean zinegotzi izan da, lau aldi ezberdinetan. Azkenekoa duela hamalau urte inguru, eta, aurten, bueltatzea erabaki du eta alkategai aurkeztu da. Goi mailako lanbide ikasketak egin zituen –automatismoa eta elektrizitatea– eta, gaur egun, Michelin enpresako mantenu langilea da.



Miriam Uranga

2011n sortu zen Orain plataforma, eta orduan etorri zitzaion Udaleko tripak ezagutzeko aukera Urangari, alkateordea izan baita azken legegintzaldian. Zuzenbide ikasketak egin zituen eta, hortik denbora batera, ekonomian diplomatu zen. Eroski Kooperatibako langile da gaur egun; analisi eta estrategia saileko arduraduna da, hain zuzen.



Joxe Anjel Zaldua

Txirla dantzalekutik ezagutzen dute oriotar askok. Garai haiek atzean gelditu dira eta Zalduaren bizitzak bira asko eman ditu. Zuzenbidea ikasi zuen eta hogeita bat urtez Gipuzkoako Ondeaketa Enpresen idazkari nagusia izan da, Gipuzkoako eraikuntza hitzarmenaren negozioaren ardura izan du, eta ehiza da bere afizio nagusia. Gipuzkoako eta Euskadiko ehiza federazioko lehendakaria da.



Amaitu den legegintzaldiaren zer balantze egingo zenukete?

Irma Domingorena: Azken lau urtean ez dugu ordezkarrizarik izan udalean, ez udal gobernuan, ez oposizioan. Hortaz, ez daukagu oso datu zehatzak eta ohiko kudeaketari buruz ere ez daukagu ezagutza handiegirik. Beraz, guretzat oso zaila da egindako kudeaketa gorai patzea edo auzitan jartzzea. Baina garbi dauka hobekuntza nabarmenak egin direla eta horiek azpimarratu nahiko genituzke, eta ez gauza ezkorrak.

Udal gobernuak hartu dituen erabaki onak ondorengoak izan dira, besteak beste: Topagune berdearen mugikortasun txostenaren ondorioz hainbat proposamen egin ziren eta horietan oinezkoei eman zitzaizkien lehen tasuna eta ez autoei. Irisgarritasun neurriak ere hartu dira, kultur etxearen sarreraren egokitzapena kasu; Eusko Gudari eta Arrantzale kaleko lurzorua hobetu da eta Arrantzale kalean bidegorria jarri da; Frontoiko eskaileren eta aldaparen egoera ere hobetu da; eta, segurtasunaren mesedetan, Goiko kalean semaforoa jarri da.



Emeterio Iribar: Balorazio ona egiten dut, hainbat arrazoiengatik. Bukatzear dagoen legegintza, krisi ekonomikoaren eraginez, Udaleko diru laguntzak %35 jaitsi dira, baina zerbitzu maila ez da aldatu. Diru laguntzak %21eko igoera izan dute, eta gobernu organoko gastuak eta protokolo gastuak %40tik gorako jaitsiera izan dute. Protagonismoa gabe kudeaketa egin da, herritarrengana eta herri eragileengana iritsi da. Berekin elkarlanean jardun eta hitzarmenetara iritsi da. Gardena izan da, lehen aldiz aurrekontuak herritarrekin elkarbanatu dira eta ekarpenak jasotzeko inkestak herriko postontzi guztietan banatu dira. Festak indarberritu dira eredu parte hartzailean oinarrituta, eta festen gastuak aurrez publikatu dira. Euskaraz bizi-bizi programak eman duenak eta kirol-mahaiak egindako lana aipatuko nituzke.

Beste herri eredu baten alde egin da lana, defizitarioak izan liratekeen azpiegiturak albo batera utzi eta estrategikoak ziren proiektuetan fokua jarrita, kanpina horren adibide. Gertutasunetik egin dugu lana, herritarren alde. Irmak aipatu bezala, irisgarritasunaren esparruan, puntu ilunetako txukunketetan, bidegorrian... aurrera pausoak eman dira. Eta amaitzeko, esango nuke liskarrik gabeko legegintza izan dela. PSE zinegotzirik egon ez arren gugana asko gerturatu da eta Orainek egonkortasuna eman dio gobernuari.

Jose Angel Zaldua: Eskerrak denbora moztu den, EAJk gaizki zer egin duen esatea tokatzen baitzaitzaion.

Zer egin duen gaizki eta zer egin duen ondo? Gaizki egin duena aipatzeko, leku guztietan salatu duguna esango nuke: kudeaketa. Uste dugu Udaleko kudeaketa txarra izan dela. Gaizki egin diren gauzekin ez naiz gehiago luzatuko.



Gauzak ondo ere egin dira, Bisigu festa mantentzea adibidez. Oriok beharra dauka kanpoan ezagutzera emateko, Orioko herriaren izena isilpean baitago. Horrelako festak ondo etortzen dira ezagutarazteko, hortaz, Bisigu festa ez kentzen ondo egin dutela iruditzen zait. Beste festak ere bere horretan jarraitu beharko lukete, baina hori ez dute egin eta ez dut kritikatu.

Ludoteka bultzatzen ere ondo egin dute. Aurreko legegintza gure programan agertzen zen proiektua da. Orain tinko hartu eta ludoteka egingo dute.

Hirugarrenik, Emeteriok esan duen bezala, kanpina obra ona izan da. Gure programan zegoen obra izan da. Horri ere sendo heldu diote eta hasi eta bukatu egin dute, programak egin behar diren bezala.

Eta, azkenik, kulturaren esparruan -Torrotxo, Miriam eta Lourdesek osatzen duten komisioa- lana ondo egin da.

Miriam Uranga: Bildu sartu bezain pronto soldatak jaitsi ziren eta urtean 54.000 euro aurreztea lortu zen. Kopuru berdina eman zitzaizkien talde guztiei, izan handiak edo txikiak, eta hori ordura arte ez zen egin. Kulturaren eta festetan izugarritzko lana egin du Bilduk, agenda begiratzea besterik ez dago. Beren esker Gabonetan Olenzeroz gozatzen dugu eta festa prozesu parte hartzailearekin antolatuta dira. Aurrekontuak gardenak eta publikoak izan dira. Euskararen alorrean ere lan handia egin da.

Aurreko legegintza ere bai, baina bereziki instituzioan, zinegotzien dekalogoan, hedabideetan lehen tasuna eman zaio, txertatu da kontratista eta hornitzaile guztien kontratuetan, *Euskaraz bizi-bizi* kanpaina aurrera ateratu dugu: ikastaroak, gogoeta eta bideoa, *ama zerbait dut zuei esateko*, KARKARAREN hitzarmena berritu eta indartu egin da, euskaltegia 2015eko irailean nortasun propioarekin izango dugu Orioko Salatxo aretoan - nahiz eta irisgarritasun arazo txiki batzuk eduki, borondatearekin konpondu daitezke -, eta, eskerrak eman behar dizkiegu kanpina aurrera ateratzeko eman digun konfiantzarengatik.

EAJrengana hiru proiekturen harira jo dugu: Ludoteka eta parke estalia, Azkueguneko aparkalekuak Orioko jendeari bermatzea eta zabortegien itxitura apaingarriak. Beren partaidetza gabe ez ziren proiektu horiek guztiak aurrera aterako.

Zergatik eman beharko genioke botoa zure alderdiari?

Uranga: 2011ko leloarekin gatzoz; herriari ahotsa ematea Udalean, erabakiak hartzen dian tokian. Horretarako koherenteak izan gara. Pentsatzen dugu herritarrrak 0 euro ordaindu behar dituela gobernuan zegoen alderdien propagandaren gatzatik. Hori zen *Orioko Plaza*, 55.000 euro urtean. Bilduk 11.000 euroko proposamen xumeagoa egin zigun, baina ezezkia esan genien. Atez atekoaren proposamena mahai gainean jarri zigutenean, baldintza, hauteskundeetan esan bezala, herri galdeketa izan zen. Alderdikeriek ez digute motxila betetzen, beraz, askeagoak gara erabakiak hartzerakoan. Orain eraginkorragoak gara, Udaleko gabeziak ezagutzen ditugu eta erakundeen artean mugitzen ikasi dugu, diru laguntzak lortzen eta kudeatzen. Hitzarmen ugari berridatzi ditugu, kontzesioetan mantenu klausulak sartu ditugu, inbentarioa egin... Proiektuak hasi eta bukatu ditugu, horren eredu kanpina eta ludoteka. Guk bideratutako ordenantzak –Azokakoa eta Ostalaritza– berarekin elkartzen egin dira. Krisi garaian etekina emango zigun gauza batean inbertitu dugu: kanpinean. 2014a errekor urtea izan da, irabaziak azken hamarkadako 1x1,7 handitu dira. Akordioetara iristen dakigu, alkate-tza Bilduri eman arren EAJ-rekin akordioak izan ditugu. Ez dugu dirua xahutu, hori publikatu den arren, argi dago ezetz. Zuen da erabakia; gu entzun, apuntek hartu eta lana egiteko gaude.

Domingorena: Alderdi sozialista, tradizionalki, beti egon da ordezkaturata udal-etxean, azken hauteskundeetan izan ezik. Hogei boto besterik ez genituen behar izan. Beharrezkoa PSE udalean egotea, dagoen eszenatokia aldatzea eta laugarren indar politiko ezkertiarra egotea. Emakume ezkertiar oriotarrak gara, eta herritarrrak entzuten ditugu. Azken astean gure programa argitaratu dugunean herriko eragile asko hurbildu zaizkigu eta berak entzuten ari gara, elkarlanean. Gure asmoa bulegotik lan egin beharrean, herritarrrak entzutea da. Badirudi hori modan dagoela azkenaldian, baina, gure kasuan, horrela da.

Iribar: Bozka eskatzerako garaian orain arte, legealdi honetan, egin den lana azpimarratuko nuke. Udalean eredu aldaketa bat egon delaste dute, eta lau urte honetan egindako lana sakondu egin behar dela eta jarraipena eman behar zaiola pentsatzen dute.



Horretarako talde bat aurkezten gara, atzetik babes handia duena. Herri programa adostasun handiarekin garatu dugu; edukiz, apaltasunez eta seriotasunez landu dugun programak osagai asko ditu.

Zaldua: Inor mespretxatu gabe, esan nahi dut talderik indartsuena EAJk daukala iruditzen zaidala. Aurkeztu direnen artean esperientzia gehien duen taldea da, presatuta dagoena oriotarrek dituzten arazoei konponbidea bilatzeko eta irtenbidea emateko.

“Orion dauden proiektu asko, ia guztiak ez esatearren, %90a baino gehiago, EAJk ekarri eta eginda-koak izan dira. Gure asmoa proiektuak hemen hasi eta bukatzea

JOXE ANJEL ZALDUA



Gure asmoa gogor lan egitea da. Kanpoan izan gara, baina bueltatu nahi dugu, eta indarrez eta ilusioz gainezka bueltatuko gara. Gardentasuna da gure helburua, ahulenen eskubideak bermatzea. Gure atea irekita egongo dira bai herritarrentzat, bai eragileentzat, bai alderdi politikoentzat. Gure bozka ez dago baldintzatuta, ez daukagu aurreiritzirik, ez dakigu nori emango diogun botoa eta proiektua izango da gure ardatza. Politika eta herritarren nahiak eta kezkek izango dira ardatza, ez siglak.

Orioko EH Bildu prest dago aurkezten dituen proposamen horiek guztiak mahai gainean jarri eta guztion artean aztertu eta eztabaidatu ondoren adostasun batera iristeko.

Horretaz guztiaz aparte, ez dugu ahaztu behar non bizi garen, zer testuingurutan. Kontuan hartu behar dugu euskal herritarrek garelara, eta Euskal Herriaren burujabetasunaren alde eta eredu berrien alde EH Bilduk bere eskaintza dauka. Alor honetan ere borrokatuko dugu eta alderdien arteko adostasuna bilatzeko prest gaude.

Orion dauden proiektu asko, ia guztiak ez esatearren, %90a baino gehiago bai, EAJk ekarri eta eginda-koak izan dira. Orain ere gure asmoa Oriok merezi dituen hobekuntzak diru laguntzen bitartez gauzatzea da, hemen proiektuak hasi eta bukatzea. Diputazioan eta Eusko Jaurlaritzan harreman onak ditugu, baita estatu eta Europa mailan ere.

Alderdien ardatza aipatu dute, gure ardatza pertsonak dira eta egin behar ditugun gauzak guztiak pertsonen eta oriotarren ongizateari begira egingo ditugu.



Orio 2030 urtean nolakoa izango den antolatu nahi da, eta gehien bat, azpiegituren inguruan hitz egiten da. Zuek buruan eta programetan zein azpiegitura dituzue?

Iribar: Plan Orokorra oso dokumentu garrantzitsua da, denon artean egin behar duguna. Horretan ari gara. Ikuspegia aldatu behar da, hori bai, ez da soilik etxebizitza eta azpiegitura lantzeko, herri estrategia bat zehaztera goaz. Izaera hizkuntzan, politika sozioekonomikoan, etxebizitzaren beharrea, ingurumenaren....

Zaldúa: Orio herri txikia izanda azpiegituren inguruan ondo osatuta dagoela iruditzen zaigu. Aski da Arraunetxea, eguneko zentroa, ambulatorioa, ikastetxeak, kiroldegia, kultur etxea, gaztelekua, egingo den ludoteka, kosta tailerra eta ditugun beste hainbat azpiegitura erreparatzea. Nahiko ondo gaude azpiegituraren inguruan.

Uranga: Herritarron nahia jaso behar du Plan Orokorrak. Guk, etorkizun hurbilean zer nahi dugun badakigu, baina 2030 urtera begira ari gara. Oraingo nahiak jasotzeaz gain, beharko ditugunak ere aurreikusi behar ditugu. Bost bilera egin dira eta partaidetza oso eskasa izan dutela iruditzen zaigu, bilera jendetsuenean orain baino gutxiago geunden.

Domingorena: Ez garenez ez gobernuan, ez oposizioan egon, ez daukagu informazio nahikoa plana kritikatzeko edo goraiatzeko. Bai esango genuke, Miriamek esandakoaren harira, partaidetza agian eskasa gelditu dela. Horri heldu egin behar zio eta sendotu egin behar da. Bestalde, ingurumen irizpideak ez direla aintzat hartzen iruditzen zaigu.



Arloz arlo estrategia bateratu bat garatu behar da eta hori gauzatzeko proposamen zehatzak egin. Herritarrekin elkarlanean. Gaur arte egin dena berria da Orion. Bost informazio saio egin dira eta jendearen erantzuna ona izan da. Iradokizunak egiteko epea maiatzaren 3an bukatu zen eta Orioko EH Bilduk, taldean dokumentua sakon aztertut ondoren, proposamenak egin ditu. Amaierara arte eredu parte hartzaile honekin jarraitu nahi dugu.

Konparazioak ezin ditut saihestu. Burura etortzen zait duela hamabi urteko dokumentuan EAJk egindako lanaketa. Goitik behar rako jarrera itxi baten ondorioz haserreak sortu ziren. Prozesu luze eta korapilatsua izan zen, bidean hamai-ka dolu eta sentitze izan zituena. Uste dut hori ez dela errepikatuko egun daukagun plan orokorrekin.

Orioren azpiegitura ia horiek guztiak EAJk egindakoak dira. Ondo gaude, baina, zer falta da? Horrekin bakarrik konformatzen gara? Ez da horrela.

Iruditzen zaigu zona industrial garrantzitsua dela, baita saihesbideko zubia ere, irteera emango baitio industriari.

Eta, Orion, menpekotasu-neko pertsona helduen egoitza egitea oso interesgarria dela iruditzen zaigu.

Horien beharra dagoela ikusten dugu. Gu saiatuko gara horiek Orion, egiten. Kontuan izanda gure ardatza beti pertsonak izango direla, eta oriotarrentzat askoz ere egokiagoa izango da egoitza Orion izatea beste herri batera joatea baino.

“Ingurumen teknikari baten beharra dago”

IRMA DOMINGORENA

Orion jende asko isilik gelditu da, era batera edo bestera, Udalaren lana da horiengana ere iristea. Plan Orokorrean Ortzaikan zubia egin ala ez; Dike, Palotas edo Mutiozabal garatu, ontziola egin, autopista azpia eta Txurruka lotuko dituen zubia egin, bidegorri sarea jarri, Motondo, hondartza, frontoia lekuz mugitu.... bezalako erabakiak hartuko dira. Frontoiaren 3D planoak garatu zituen pertsona batek, eta horiek jendaurrean jartzea eta horien artean erabakitzea aukeretako bat izan daiteke.

Izan ere, guk hemen ikuste duguna da 5.816 pertsona gaudela Orion gaur egun, eta iruditzen zaigu partaidetza ez dela esanguratsua izan. Nik behintzat bozka eman behar badut zerbaiten alde ez dut gustura eta lasai emango. Ez zait iruditzen horrela jakingo dugunik herri honek zer nahi duen.

Guk uste dugu udalean ga-bezia dagoela. Momentu honetan Orioko Udalak ez daukala ez ingurumen teknikaririk, ez ingurumen sailik. Pentsatzen dugu azpiegituraz hitz egitea ondo dagoela baina beharrezkoak direla baliabide teknikoak eta giza baliabideak. Nahiz eta zinegotzi bat egon sektorean lanean, teknikari baten beharra dagoela uste dugu. Plaza berriak sortuta edo barne antolakuntza moldatuta, pentsatzen dugu ego-ki dela lanpostu berri bat sortzea; teknikari bat edukitzea ingurumen irizpideen inguruan dakiena.

Hondartza, Motondo, draga, espazio erreserbatuak, bidegorria... hainbat gai gaude non irizpide tekniko eta kualifikatuak behar diren, ezagutza behar den. Orduan, gu udalen gaudenen, proposamenetako bat ingurumen teknikari bat hartzea izango da.

Ekonomia sustatzeko non ekin behar dela uste duzue? Nola ikusten dituzue arrantza eta turismo sektoreak?

Zaldua: Oriok beti gabezia bat izan du, industrialdea da hori. Industrialdean enpresak kokatzen direnean dirua etorriko da Udalera, Jarduera Ekonomikoen Zergaren bitartez. Horrek, gainera, enpleguak sortuko ditu, eta poztasuna ekarriko du herrira. Lana duenak dirua lortzen du eta herrian gastua egiten du du, herriko tabernatan eta dendetan uzten du dirua.

Lortzen diren diru-laguntzak ere garrantzitsuak dira. Aurreko legealdian 6 milioi euro lortu ziren subentzietan. Eta aurtengo legealdian 2 milioi bakarrik izan dira. Ez dakit krisiaren erruz izan den, baina asko jaitsi da. Berriz ere 6 milioi izan daitezkeen saiatu behar dugu. Horrez gain, Orioren onurarako hainbat lan egin dira: txankako hondartzako bidea autobideko irteera, kofradia berria, tren geltokia... guztiak Foru Aldundiak ordainduta. Hori subentzietako 6 milioietatik aparte egin da; dena kontuan hartuta, diru asko sartu zen Oriora.

Arrantzari dagokionean, Orion sei ontzi daude. Kontuan izan behar dugu sei ontzi horiek sei enpresa direla, bakoitzak 15 familia ingururi ematen dio lana. Horiek zaindu egin behar dira. Kofradia bestea aldean dagoenez, sarea josten jarduten diren emakumeek urte osoa pasa dute alde batetik bestera ontzietan joaten, luizia dela eta ezin zutelako autoz joan. Horiei ere bidea jarri behar zaie, emakume horiek beren lana egitera joan daitezken.

Uranga: Ekonomia sustatu? Norbaitek jakingo balu ez ginateke egoera honetan egongo. Orio ez da irla bat, gaur egun 331 pertsona daude langabezian eta tasa %11,54koa da. Esan da Udalak ez duela euro bat bera ere inbertitu gaian, eta hori gezurra da. Urola Kostako Udal Elkartearen ordezkaria dugu; enplegu sustapenerako 49.000 euro ematen dizkiogu elkarteari eta enpresa garapenerako 30.000. Udalak esan dezake poligono bat egingo duela, eta lan asko ekarriko duela. Baina enpresa batek benetan interesa izan arte eta hor kokatu nahi izan arte, jai dugu. Kanpina da Orioko motorra. Lanpostu segurua da batetik, 25 langile inguru ditu. Bestetik, diru iturri zuzena da Orioko aurrekontuentzat. Zeharkako motorra erabada, gure ostalariengan eragin zuzena baitauka. Ostalaritzan eta merkataritzan alde egiteko apustua egiten dugu. Udako egun batean 4000 pertsona etor daitezke kanpotik hondartzara, eta normalean txan katik barrena bueltan joaten dira. Hortaz, informazio gune bat jarri beharko genuke udan hondartzan. Kanpotik etortzen direnak gonbidatu behar ditugu herrira etortzera pintxo bat jan, pote bat hartu eta erostera. Sektore tradizionala ezin dugu ahaztu, gure nortasunaren parte da. 6 arrantza-ontzi, 90 arrantzale eta 9 saregile daude, eta hor nahi ditugu. Mutiozabal ontziola berreskuratu behar dugu bai ala bai. Eta baita kofradia zaharra ere.

Domingorena: Poligono industrialari dagokionez, guk pentsatzen dugu Aizperro ez dela beharrezkoa. Ubegunek baditu pabiloiak libre, eta pentsatzen dugu poligono industrial berri bat ez dela egin behar. Zerbitzu herria da Orio, populazioaren %50ak zerbitzuetan egiten du lan, %10ak bakarrik industrian. Orio oso hurbil dago Zarauztik eta Donostiatik, eta han alokairuak oso garestiak dira. Horregatik egoki ikusten dugu Udalak laguntza fiskalak ematea hemen hirugarren sektoreko edozein jarduera ekonomiko jartzen duenari.

Pentsatzen dugu zerbitzuak bultzatu behar direla, eta zerbitzuen barruan turismoa. Baina ez hondartza turismoa, gure nortasunarekin harremana duena baidzik. Krisi ekonomikoak hainbat gauza jarri ditu auzitan, eta hausnarketa kolektiboa eta norbanakoa egon da. Turismoa egiteko modua aldatzen ari da, eta hurbileko jendea etortzen ari da Oriora. Eta horren inguruan, pentsatzen dugu Motondoko ingurune erreserbatuari errendimendu ekonomikoa atera dakioke la. Hau da, Urdaibai edo Txindokiko erreserba naturalak errendimendua ematen ari diren bezala, guk ere atera diezaiokegu Motondori. Gastronomía, arrantza, tradizioa... Nazioarteko azokatan kanpina nola saltzen den ikusita, pentsatzen dugu turismo ekologikoa eta alternatiboa ere posible dela, eta hori bultzatu nahikogenuke.

Iribar: Gure ustez Plan Orokorra da Orioko ekonomia estrategia diseinatzeko markoa. Eta une honetan aukera aiposean gaude. Udal Elkartearen ezinbesteko baliabidea dugu. Orioren etorkizuneko potentziala turismoan dago. Turismo eredu sortu behar dugu, herriak dituen aukeren katalogoa bateratuz. Kanpina estrategikoa da, eta legealdi honetan lehentasuna eman zaio. Hilzorian zegoen eta biziberritu egin da. Aspaldiko partez diru-sarrerak eman ditu eta dudarik ez dut herria eta udala hauspotuko dituela. Buelta bat eman behar zaio Goiko Kaleko Iturriaga Jaurregiari, zerbitzua indartuz eta Pilliku plaza kanpokoen eta herritarren txokoa bihurtuz. Mutiozabal eta Motondo, historia eta ingumena gure altxorak direlako turismo eredu berriaren gakoak izan daitezke. Arrantzari dagokionez, eskumenak eta jardun eremua mugatua da. Zoritzarrez, ez dugu ahalmenik Europarekin zuzenean negoziatzeko. Guk, dauden azpiegiturak hobetzea dugu erronka: karrua, Arostegi ingurua, arrantza portua... Kofradia zaharrari buruz, 2012an gaia konponduko zuela esan zuten EAJk. Ia hiru urte geroago, berdin gaude. Aizperro industriagune moduan mantentzearen alde gaude, baina izan gaitezen errealistak. Zenbat pabiloi daude hutsik? Zer da merkeago, pabiloi horiei erabile-ra ematea edo hutsetik Aizperron dena sortzea, dirutza inbertituz?



Herria asko hazi da. Zerbitzuak eguneratzeko beharra ikusten al duzue? Zein, zehazki?

Uranga: Herria asko hazi da. 2011tik 520 pertsona gehiago daude, %10a. Zerbitzu ugari ditugu, eta azken legegaldian hizpide izan diren batzuk aipatuko ditut. Haurtzaindegian plaza libreak daude eta, beharrezkoa izanez gero, gehiago atera daitezke. Zaraguetan gelak agortzen ari dira; zorronez, epe laburrean konponbidea emateko moduan gaude. Musika eskolan 300 ikasle baino gehiago daude. 2015eko irailean lehen aldiz ludoteka izango dugu, 200.000 euroko kostua izan du eta pliegoak martxan daude zerbitzua kudeatzeko. Gaztetxea, 156.000 eurotan erosi zen; aurreko legegaldian aldarrikapen askoko gaia izan zen eta oraingoan isilik pasa da. Parke estalia 2016an egingo da. Eguneko zentroaren herena hutsik dago. Kokapen ezin hobea du, ile-apaindegia eta medikuak eraikin berean dituzte, eta terraza egin zaie lorategian. Zaharren babeslekua txikia geratu dela argi dago, baina kokapena oso estimatua da eta portutik ez dute mugitu nahi. Eta egoitza, norkez du nahi zaharren egoitza Orion? Zerbitzu sozialen mapa Jaurlaritzaren eskumena da eta 2012an saiatu ginenean plaza gehiago ez zela sortuko esan ziguten. Norbaitek formula bat badu, mahai gainean jar dezala, ez dago denborarik galtzeko. Lorategien mantenua aldatu da, begi bistakoa da lorategiak txukun daudela. Eta garbiketa da zintzilik duguna, 2016tik aurrera helduko zaio gaiari.

Domingorena: 500 biztanle gehiago izatea hazkunde nabarmena da, baina zerbitzu aldetik Orio ondo dagoela ikusten dugu.

Baina eguneko zentroak ez du kokapen egokia. Garai batean EAJk bazuen proiektu bat zeramika lantegia baliointzeko zentro bihurtzeko. Guri ideia ona iruditzen zaigu. Osasun mentaleko plazak izan ditzake, adibidez; Jaurlaritzaren laguntza egongo litzake horretarako. Bestetik, eguneko zentroa eta gizarte zerbitzuetako bulegoak han egon daitezke eta turismo egokituko hotel edo aterpe bat egin daiteke bertan. Irisgarritasun arazoak dituzten pertsonak askotan mugak dituzte oportetara joateko. Guri lekua oso egokia iruditzen zaigu, handia da, eta turismo egokitu horrek jendea ekarriko luke Oriora. Eta herrira etortzen den jendeak gastua egiten du.

Teknifikazio zentroaren inguruan, inbertsio handia egin zen eta potentzial handia du, baina gure ustez ibaiari lotutako hainbat jarduera bultzatu behar dira: piraguismoa eta kayakak, adibidez. Lehen esan dudana bezala, turismo ekologikoa erekin lotuta errendimendua atera beharko litzaioteko.

“Eta egoitza, norkez du nahi zaharren egoitza Orion? Zerbitzu sozialen mapa Jaurlaritzaren eskumena da”

MIRIAM URANGA

Iribar: Zerbitzuen lehentasuna oriotarren beharretan jarriko dugu. Ongizatean, alegia. Herria asko aldatu eta hazi da.



Etorri berriak asko dira gurean, eta egoera ekonomiko larrian ere jende asko bizi da Orion. Hori kontuan izanda, ongizate zerbitzua indartu beharrezkoa da. Elkarbizitzan oinarritutako eredu martxan jarri nahi dugu, *Ongietorri Oriora* harrera protokoloa martxan jarri nahi dugu.

Zerbitzuen alorrean garbitasunak du lehentasuna, eta aurreko gobernuak prest utzi du datorren udazkenean zerbitzu hau beste eredu batean martxan jartzeko. Ikusi duzue, zerbitzu berriak pentsatu baina daudenak ondo mantendu behar dira. Hori da gure lehentasuna.

Legegaldia zaharrean kiroldegia eta kosta tailerra berriki dira. Kontsumo aurrezteko argiteria sistema abiatu da. Hondakin ontzien egokitzapena egin da. Lorezaintza eta hilerria ere landu dira. Aurrerantzean ere, hobetzeko lan egingo dugu, liburutegian, esaterako. Brigada ere indartu nahiko genuke. Lanpostu berriak sortzea da gure proposamena.

Zaldua: Miriamek esan du ez direla lau urte galdu behar egoitzarako proiekturik badago. Esan behar dut aurreko legegaldian bazegoela egoitza egiteko proiektua, eta honetan lau urte galdu direla.

“Miriamek esan du ez direla lau urte galdu behar egoitzarako proiekturik badago. Esan behar dut aurreko legegaldian bazegoela egoitzarako proiektua, eta honetan lau urte galdu direla”

JOXE ANJEL ZALDUA

Gure asmoa ez zen egoitza eredu ohikoa egitea –Zarautzen, Zumaian edo Irunen daudenak bezalakoak–; Domingorenak esan duen bezala, egoitza berezia egin nahi genuen. Menpekotasuna duten pertsonentzako hotelarekin. Izan ere, badaude tokiak pertsona horiek utzi eta zaintzen duena oportetara joateko, baina ez pertsona horiekin joan ahal izateko. Arozena eremuan, egoitza barruan, horrelako gune bat egitea proposatzen da gure programan. Bestalde, azpiegitura aldetik oso ondo dago gure herria. Orain egin behar dena honakoa da: azpiegitura horiek bultzatu, eguneratu eta, jende gehiago etortzen bada Oriora bizitzera, zerbitzu horiek guztiei eman.

Euskararen egoera nola ikusten duzue? Zer egingo duzue Orioko euskararen arnasmunea sendotzeko?

Domingorena: Ni elebiduna naiz eta naturaltasun guztiarekin hitz egiten dut euskaraz eta gaztelera. Orio herri euskalduna da, baina ezin da ukatu hizlarien portzentajea jaitsi egin dela. Etxebizitzaren sustapenaren ondorioz, jende asko etorri da kanpotik eta bikote asko erdaldunak edo mistoak dira.

Guk ez dugu arazo bat ikusten hor, bikote horien seme-alabak D ereduan ikasten dute eta. D eredua bermatua dago eta %100ak euskara ikasten du ikastetxeetan. Egia da ez dela autokonplazientea izan behar eta neurri batzuk har daitezkeela. Guk, Udalak onartutako euskara planari defizit batzuk ikusten dizkiogu. Agian erlaxatu egin gara administrazio moduan. Industria mailan, adibidez, alor pribatua euskara ez dela erabiltzen ikusi dugu, eta Udal Elkartetik hartutako neurriak baztertu egin direla. Horiek berreskuratu behar direla uste dugu.

Euskaltegia ere aipatzen da Salatxo aretoa polita da baina ez dauka irisgarritasuna bermatua eta zerbitzu publiko batek irisgarria izan behar du. Moldatu daiteke, baina ez du zentzu asko inbertsioak egitea Udalak beste lokal batzuk baditu. Bestalde, autoikaskuntza bermatzea beharrezkoa da. Azkenik, ohar bat: agian kezka dago zinegotzi sozialistak izanik euskaraz egingo dugun edo udalaren funtzionamendua baldintzatuko dugun. Guk baditugu euskaraz egiteko baliabideak, hemen gaudela da proba.

Iribar: Euskararen gaian fase berri batean sartzeraz goaz. Euskaraz zer behar duen esateaz gain, norbera zer egiteko prest dagoen zehaztu behar dugu. Bilduk konpromisoa erakutsi du eta erakusten jarraitzen du. Lehena, konpromiso pertsonala da: alkate eta zinegotziek euskaraz lan egitea. Ahozko erabilera eta idatzizko erabilera, hori da Orioko Udalak euskaraz funtzionatzeko neurririk eraginkorrena. Hortik aurrera, lau jardun eremu nagusi markatzen ditugu: udalak euskaraz funtzionatzeko neurrietan lau urteko lana diseinatzea, herritarren kontzientzian eragiteko *Euskaraz bizi-bizi* programarekin jarraitu eta ekintzak herrian zabaltzea, euskaltegiaren proiektua martxan jartzea – oriotarrei euskara ikastea 100 euro baino gehiago ez kostatzeko modua egin behar dugu – eta euskararen alde lanean ari diren herri proiektuak lagundu – curriculum, KARKARA, ikastola, eskola... –. Adibide nagusia, KARKARA da: orain arte zuen laguntza %20ean igo da. Pasa den asteke udalbatzarrean hitzarmena berritzea onartu zen. Orain eta Bilduren botoarekin, 20.400 euroko laguntza izango du orain.

“Euskaraz zer behar duen esateaz gain, norbera zer egiteko prest dagoen zehaztu behar da”

EMETERIO IRIBAR

Zaldua: *Bizi-bizi* programatik datu batzuk hartu ditut. Horien arabera, Orion lehen %83ak hitz egiten zuen euskaraz eta orain %76ak. Horrek esan nahi du euskaldun kopurua jaitsi dela. Etxeko hizkuntza euskara zuten familiak %73 ziren lehen eta orain %52. Etxean gaztelera egiten zutenen kopurua %18tik %31ra igo da. Ikastetxeetan gure haurrek euskaraz hitz egiten dute eta 20 urtetik beherakoek euskaraz hobeto egiten dute gaztelera baino. Guk, alderantziz; gaztelera alfabetatzen eta hobeto idazten

“Lagun artea galdu du euskaraz? Ez da gai motela, nik uste dut bakoitzak hartu behar duela erantzukizun maila eta erabaki. Zer egin kanpoko norbaitekin Orion topatzen zarenean? Euskaraz ala erdaraz?”

MIRIAM URANGA

eta irakurtzen dugu gaztelera, nahiz eta etxean euskaraz egiteko ohitura izan. Kaleko euskara hitz egiten dugu, eta hori bultzatu behar litzake. Haurrek eskolan ikasten dute, baina badirudi 20-30 urtetik gora gutxiago hitz egiten dela. Zerbait egin behar litzake kaleko euskara bultzatzeko. Kirolean euskara erabiltzen baduzu, ohitura hartzen duzu eta lagunartean ere egin dezakezu, eta horrek etxean eragiten du. Ohitura hartzea da kontua. Euskaltegia egiteko beharra ikusten dugu. Orion ez dago euskaltegirik, baina bai proiektua. Beharrezkoa da euskaraz ikasi nahi duen jende helberraztasunak ematea.

Uranga: Zorionez udalean euskara teknikari oso onak daukagu, eta badakit ez dela gai honetan atzerapausorik ematen utziko. Orioko biztanlerian ematen ari den hazkundeak erronka bat ekartzen digu guztioi. Bakoitzak kontzientzia hartu behar du, eta bakoitzak hausnartu eta ardura hartu behar du gaiaren inguruan. Lagunartea galdu du euskaraz? Zenbat aldiz entzun ote diot Torrotxori hori esaten. Ez da gai motela, nik uste dut bakoitzak hartu behar duela erantzukizun maila eta erabaki.

Zer egin kanpoko norbaitekin Orion topatzen zarenean? Edukatua izan eta erdaraz erantzun ala ez hain edukatua izan eta euskaraz egin? Ez da gai erraza. Nik euskaraz ez dakien jende asko daukat inguruan. Baina Orion 30 urtetan bizitzeak eta euskaraz hitz egiten ez jakiteak, zer esan nahi du? Nire aitak, beste batzuen aiton-amonek bezala, nola ikasi zuen gaztelera? Derrigortuta. Zaila da, ez dugu atzera pausurik eman behar. Uste dut bakoitzak bere ardura hartu behar duela gai honetan. Familian, seme-alabak nola nahi ditugun hezi erabaki behar dugu, eta horren araberajokatu.



Nolako izan behar du Udalak bi ikastetxeen eman dien tratuak? Ba al daukazue proposamenik bi ikastetxeen artean dagoen gatazka samurtzeko?

Iribar: Hezkuntza eta etorkizuna elkarlotuta daude eta berebiziko garrantzia ematen diogu horri. Gure ustez modu berdinean tratatu izan ditugu bi ikastetxeak, jarrera berdinarekin. Eskaera bakoitza etorri den bakoitzean –aurreko legealdian behintzat– eskaera aztertu, jaurlaritzatik diru laguntza kudeatu eta etortzen zenean babestu egiten ginen. Bai bata, bai bestea. Biak.



Momentu honetan arazo nagusia Gasteizetik eta Jaurlaritzako hezkuntza saileko laguntzen murrizketak dira. Ikastetxeen beharren egoera larritu egin da, eta, kasu horretan, udalategia da gertuen dagoen erakundea. Nik uste dut legealdi honetan Udalak gertutasun horrekin lana egin duela bai Zaraguetari DBHko eraikuntzaren babesean, baita Ikastolan ere.

Bien arteko bizkar emate horretan nik uste dut bien arteko jarrera aldaketa bat egon behar dela. Udala bitarteko lana egiteko prest dago, nik uste dut alderdi guztien partetik ez dagoela arazorik hori samurtzeko bitartekari lanak egiteko. Nik ez daukat formula magikorik, baina denen borondatea behar dela iruditzen zait.

Zaldia: Zaragueta eta Ikastola, bi ikastetxeak Oriokoak dira eta biei aukera berdina eman behar zaie. Ahalik eta gehien lagundu behar zaie, bai bati, bai besteari. Ez dago diskriminatzerik, ez baten alde, ez besteari alde. Bien alde egin behar dugu eta biak bultzatu behar ditugu. Ikastetxe horietan ikasten dute herriko haurrek. Gurasoen erabakia da batera ala bestera eramatea. Umeari eman behar zaion aukerak berdina izan behar du. Bien arteko harremanak samurtzeko gu beti egongo ginateke prest, baina kontuan eduki behar da harremana hobetzeko berak egin behar dituzte bilerak.

Berak adostu beharko dute harreman hori nola goxatu. Zuk esan duzu bizkarrak emanda daudela, bada, hortik batak besteari besoa ematera pasa behar dugu; eta, azkenean, bata bestearen parean egotea, berdintasunean eta elkarrekin ondo emanez, egongo dira. Guri eskatzen dizkiguten baliabide guztiak jarriko dizkiegu, baina berak izan behar dute harremana sendotzen dutenak.

“Gurasoek aukera behar dute nahi duten eredia eta kalitatezko hezkuntza bermatu behar zaie. Udalaren laguntzak berdintasun printzipioan oinarritu behar dira”

IRMA DOMINGORENA

Uranga: 2011n Zaraguetak ez zuen DBH. Gaur egun, biek daukate. Azken plenotan tira-bira asko egon dira gaitz honi lotuta. Udaletxeak Zaraguetan DBH jartzearen %40 eta Ikastolaren %48a ordaindu du. Legalki Zaraguetako mantenua Udalarik dagokio, 98.000 euro. Eskolaz kanpoko ekintzetarako 31.000 euroko hitzarmena dauka. Ikastolari legalki ez daude behartuta ordaintzera, baina 150.520 euroko hitzarmena dauka: 132.000 mantenua eta 18.000 eskolaz kanpoko jardueretarako. Ikastolak 737 ikasle ditu, Zaraguetak 272. Datuak ez ditut alderatzeko ematen.

Egoera batean gaude non gastuak ordaintzeaz gain diru laguntza ematen dugula. Zergatik ezin zaio Ikastolari eman?

Uste nuen gau hori gaindituagoa zegoela. Dezepzio handia hartu dut. Nire kulpak onartzen dut, iruditzen zait pertsonak egiten ditugula harremanak eta erlazio hau naturalizatu egin behar dela. Neurriak hartu behar dira Udaletik. Kirol eskola Zaraguetara eraman eta ekitaldi kulturaletan, kultur etxean sardina moduan egon ordez, Ikastolako areto nagusia erabili. Naturalizatu egin behar da harremana.

Bakeolan sartu genuen –gatazkak konpontzeko elkartebat– eta bakoitzak gure ikuspuntua eman ginen, pertsonala. Honekin bukatu egin behar da. Oso urruti gaude gatazka bukatzetik, zoritxarrez, saiakerak egin dira. Herri honetan gatazka hau egoteak ez du merezi.

Domingorena: Nire ikuspuntua ez dator erabat bat Miriamek eman duenarekin. Badirudi denak ados gaudela berdintasuna nagusitu behar dela. Ana eta biok Zaraguetako ikasleen amak gara eta guk ez dugu ikusten bi etxeen arteko gatazka. Hemen bikoteak nahastuta daude, koadrillak, umeek beste hainbat jardueretan kointziditu egiten dute... hemen ez gara ari ikastetxeen arteko gatazka historikoaz hitz egiten, botere publikoak duen arduraz baizik.

Herrian bi hezkuntza eredu daude: publikoa eta kontzertatua. Ume oriotarrak batera eta bestera joaten dira. Kontua ez da ikastetxeak berdin tratatuak izan behar direla, baizik eta haurren baldintzak berdinak izan behar dutela. Horrek ez du esan nahi ikastetxe batek diru laguntza ez dula jaso behar. Ekitatez eta berdintasuna ardatz, umeak oriotarrak direlako eta umeen hezkuntza ona bermatu behar dugulako, udalak bete-behar hori dauka.

Berdintasuna ez da papelean jartzeko zerbait. Ezin dena da bi ume oriotar egotzea desberdinean eduki. Berdintasuna nagusitu behar bada, nagusitu dadila. Nagusitzen ari baldin bada, zergatik ikastetxe hainbat pertsonak pertzepzio ezberdinak dituzte? Batzuk biktima sentitzen dira eta besteak biktimago. Gurasoek aukeratu behar dute nahi duten eredia eta kalitatezko hezkuntza bermatu behar zaie. Udalaren laguntzak berdintasun printzipioan oinarritu behar dira.

Esandakoaren gainean zerbait gehitu nahi baduzue, edo eskerrak eman, edo beste zerbait aipatu, orain duzue aukera horretarako.

Zaldúa: Ez daukat ezer ere ez gehitzeko, galderen txanda ireki dezakegu, nigatik.



Uranga: Beñati eskerrik asko, eduki dugun erlazio-gatik. Pertsona zintzoa da eta asko estimatzen dut berekin egin dudana harremana. Udaletxeko langile asko-ekin hartu eman berezia izan dut, asko irakatsi didate. Langile eta postu batzuk ez nituen ezagutzen, eta profesional oso onak iruditu zaizkit.

Ados nago Irmarekin Aizpe-rroren kontuarekin, inguru-
men teknikaria behar dela eta Teknifikazio zentroari etekina atera behar ziola. Begi bistan ari da lanean, zerbitzu medikua daukagu, piraguismoak ere gastu batzuk ordaintzeko ematen du... baina hor mantenu gas-
tuak izugarriak dira eta etekina atera behar zio. Zabor hondakinaren gaian ere ados nago. Eta esan hitz egingo dugula, ez baitut ulertzen berdintasunaren printzipioa noiz hausten den Udalean ikastetxeen kontuarekin.

Emeteriorekin brigada sendotu behar dela. Ados, Iturriaga jauregiari buelta bat eman eta Goiko kale bi-zitu behar dela. Bideragarri-tasun plana egiteko ekono-mista behar dugu. 2002an egin zen arrazionalizazio plana berriz egingo nuke.

EAJri komentatu 2008-2009ko zenbakitetara iris-ten saiatzen naizela baina kostatu egiten zaidala. Sei milioien inguruan azalpe-nak eman nahiko nituzke: lau milioi eta piku teknifika-zio zentrorra joan ziren. Eta lau urte galdu diala? Nik uste dut baietz baina hori da proposamena ez duzelako mahai gainean jarri.

Domingorena: Etxebizitzak garestitzea nabarmena da, nahiz eta azkenaldian behe-raka doan garestitze hori. Etxebizitza garestitu egin dira Oriore inguruan ere, eta horregatik etorri dira kan-potik Oriore bizitzera, nire kasua ere hori da. Alokairua oso garestia da eta etxebizi-tza erostea ere bai.

Guk alokairu sozialak bul-tzatu nahi ditugu. Beste udalerrietan gertatzen ari den bezala, Azpeitian adibi-dez. Udalak bere eskumen mugatuekin egin dezake eta bultzatu dezake alokairu so-ziala. Jabeak zenbaitetan ez dira gustura sentitzen alo-katzerakoan, ez daude ziur.

Guk pentsatzen dugu merkaturatu daitezkeela hutsak dauden etxebizitzak. Egon daitezkeela hobariak jabeentzat, Udalak egin de-zakeela eta bermatu dezake-ela. Horretarako aztertu egin beharko litzateke alo-katuko zukeen pertsona -adina, lan egoera...- baina mahai gainean jartzen dugu gaia, alokairu sozialak abia-puntu izan behar dutela iru-ditzen baitzaigu. Erosketa baztertu nahi dugu eta kont-zientziatu alokairuaren al-ternatiba ona eta eroso dela, et askorentzat alokairu soziala aukera bakarra dela.

Bukatzeko esan nahiko nuke gure aukera defendatu dugula. Administrazioa eta Udalak ezagutzen ditugula, baita inguruko udalerriak ere. Eusko Jaurlaritza eta Aldundia ezagutzen ditugu, baita legedira ere. Gai senti-tzen gara eta gure burua gai ikusten dugu, eta zuek ere hori ikustea eta bozka ema-tea eskertuko genuke.

Iribar: Guztiz ados nago alo-kairu sozialarekin, baina oso mugatua ikusten dut Udala-ren ahalmena bitarteko guz-tiak jartzeko. Eusko Jaurla-ritzan alokabide izeneko zerbitzua dago eta Udalaren papera horrekin koordina-tzea dela uste dut.

Arozenako egoitza proiektu polita izan daiteke, baina errealistak izan behar dugu. Ez dut ulertzen duela lau urte EAJk atera zuen proposamena, beren eskue-tan zeuden arau subsidiarioak bideratu zituzten, eta ezinezkoa zen kalifikazioa -erabilera tertziarioak- jarri zioten eremuari. Hau-teskunde kanpainan gauza bat esaten zuten eta udale-txeko lanketan beste bat. Ar-gumentu bezala planteatzen bada ikusi beharko da plan orokorraren barruan nola bideratu dezakegun hori. Eta beste erakunde-ek -Jaurlaritzak eta Diputa-zioak- zer planteamendu eta mapa dituzten ere ikusi beharko da.

Plan orokorraren parte hartze maila handiago izan zitekeen, baina Orioko espe-rientzia ikusita, 30-35 lagun egotea jardunaldietan, me-ritu handia iruditzen zait. Uste dut hori indartu daitekeela, baina ez dela abiapuntu txarra.

“Eusko Jaurlari-tzan alokabide izeneko zerbitzua dago eta Udalaren papera alokairu soziala horrekin koordinatzea dela uste dut”

EMETERIO IRIBAR



URTEAN 36 EURO

8 KUBATA

29 KAFE

6 PELIKULA

12 TREN BIDAIA

30 LITRO GASOLEO

18 ZERBEZA

KARKARAKO HARPIDETZA

HARPIDETU

KARKARA.EUS/HARPIDETZA

KARKARA@KARKARA.COM

9438310527



Eñaut Martí

#esnanazazue4 urtebarru

Bizitza honetan dena egitera laburtzen da. Gaizki eginak ezer ez egitearen aldean mila gauza positibo dituela ohartzean hasten da benetako iraultza.

Nire bizitzan ez dut botorik eman, eta oraingo honetan ez du ematen iritziz aldatuko dudarik. Egia esan ez dut demokrazian sinisten, ez behintzat demokrazia honetan, inposatutako eredu batean bizi gara, zelda baten barruan aske garena sinetsiaz; eta gu lasai, elkarri begira, gure curriculumean meetingak, manifestazioak, onspen sozialaren erakusgarri diren milaka garaikur pilatzen ditugun bitartean.

Askotan amestu dut benetazko bisio eta helburuak dituzten agintariekin, egitearen filosofia dutenekin eta ez hitz egitearen filosofia, bizitza honetan dena egitera laburtzen baita. Gaizki eginak ezer ez egitearen aldean mila gauza positibo dituela ohartzean hasten da benetako iraultza.

Gure herriaren gaitza, eta herria diodanean bere esanahi zabalenez ari naiz, horixe da. Pertsona batzuen artean XX. mendera aingura bota digutela hegan egin ez dezagun.

Istorioak istorio eta gure herriaren egoera, izaera? Bada, toz hauteskundeak eta badira hautagaiak, baita ere hautesle eta aurkezleak. Has dadila *showa!*

Zentzu askorik ba ote du gurea ez den joku batean parte hartzeak? Gorrotatzen genuen guztia bihurtu garelakoan nago, eta gainera harro.

Dena den....demokraziaren norgehiagokan, irabazle eta galtzaile bat dauden honetan; herria tartean eta promesak airean. *Atzera goazela aurrera ez bagoaz eta zain dagoena beti zeozeren zain egongo da...* itsasontziek portutik irten beharra daukate arrantza egingo dutela jakin gabe, bizitzan zenbaitetan zerbait arriskatu behar den bezala, ea nor den portua utziko duen alderdia; moilan arrantzaren ez baita hegazluzerik harrapatzen.

Zera dio Euskal Herriko kanta ezagun batek, *Hik bultza gogor hortikan ta bultza nik hemendikan, ikusiko dek nola nola laster eroriko dan;* eta inoiz pentsatu al dugu bat alde batetik tiraka eta bestea bestetik nonbaitera mugitu ordez leku berean geldituko gara? Egizue frogatzen eta tira soka baten bi muturretatik ea zer gertatzen den.

Bada, hori gertatzen zaio gure herri maite honi, ez dugula nahi gure herriaren aurrerapausoaren dominak besteen lepoetan amaitzerik.

Aupa zuek! Segi horretan eta begiratu zuen zilborretan... bertan baitago behar dugun aldaketa. Bejondeizuela! #esnanazazue4urtebarru.



Galdera ikur ugari, eta harridura gutxi

Galderen txanda luze joan zen, entzuleek galdera asko egin zituzten **eta hainbat galderetan kateatuta gelditu ziren**. Testua irakurterazagoa izateko laburtu eta txukundu egin dugu. Dena den, galdera eta erantzun guztiak karkara.eus-en topa ditzakezue.

Herri tarasko erantzun bila joan zen mahai-ingurura. Galdera ugari egin zituzten, mahaikide bati zuzendutakoak eta guztiak erantzutekoak.

Galdera pertsona bati zuzenduta egonagatik, honek erantzun ostean, beste mahaikide batek ere bere ekarpena egiteko aukera eman zuen Jakes Goikoetxea moderatzaileak.

Mahai-inguruaren bigarren zati honek ordubetetik gora iraun zuen, galdera batzuetan eztabaida piztu baitzen. Eztabidak errespetuzkoak eta tonu lasaikoak izan ziren une oro.

Joxe Anjeli. Diario Vasco egunkarian egin zenituen azalpenak ondorengoak dira: Nire ustez oriotarren kalitatea hobetzeko oinarrizkoak diren proiektuak ez dira aurerra eraman EAJk bakarrik babestu dituelako. Zein proiektuz ari zara?

Zaldua: Gune industrialeko lurak NASIPA enpresari saldu zizkioten lur-jabeek eta harrezkero, ez dut uste Orioko EH Bilduk ezer gehiago bultzatu duenik. Eremu horrekin jarraituz, hor itota dagoena saihesbidetako zubia da. Proiektu hori eginda dago, baina horretan geratu da, ez zaio Kostasi baimenik eskatu.

Ez da ezer egin. Nahikoa garbi geratu da zaharren egoitzari buruzko proiektua mahai gainean jarri zuela EAJk aurreko legealdian, eta honetan ez da ezer ere egin: ez baimenik eskatu, ez erabilera tertziarioa aldatu, ez martxan jarri.

Plan Orokorrean parte hartzea eskasa izan dela esan duzu Miriam. Jakin nahiko nuke hor hartzen den erabakia loteslea izateko zein portzentaje hartuko duzuen kontutan.

Uranga: Izan den parte hartzea ez dela adierazgarria izan iruditu zaigu. Jende askoren ikuspuntua bagenekien, eta, gai beraren inguru-

ruan iritzi kontrajarriak daude.

Etorri ez den jendeak ere aukera izatea bultzatuko nuke, erabaki behar dena ikusi eta eztabaidatzeko; bestela, ni ez naiz lasai egongo. Beste bide batetik saiatu eta bost ekarpen besterik ez ditugula lortzen? Behintzat ahalegindu gara.

Niri iruditzen zait parte hartzea bilera formatuan agortuta dagoela. Beste era batera egin behar da, saiakeraberezia eskatzen badu ere, egin beharrekoa da. Data iritsi eta erabakia hartu behar bada, zoritxarrez, gure ardurarabakia hartzea denez, hartuko dugu. Batzuetan zuzenak izango dira, besteetan okerrak, batzuen gustukoak

edo besteen gustukoak; baina, beti, asmo onenarekin egindakoak. Nik uste dut saiakera bat egin behar dugula iritsi ez garenengana iristeko, batez ere frontoia- ren kontuarekin, aurreko le- gealditik datorren gai korapilatsua baita.

Ikastolari ematera doazen 300 mila euroren inguruan, zer-gatik eman du EAJk ezezko botoa?

Zaldua: Lehendabizi argitu behar da EAJren botoa ez zela ezekeo izan, abstentzioa izan zela. Aurrekoan emate-aren alde egin genuen eta beste batzuk ezetz bozkatu zuten. Hori garbi gelditu da- dila. 1.070.000 eman genu- tuenean, guk alde bozkatu genuen baita PSE-EEk eta Aralarko batek. Kontra Ara- larko beste batek eta ANVk egin zuten. EAKoa izan zen abstenitu zen bakarra. Orain, gu abstenitu gara, egin den moduarekin ez gaudelako ados.

Garai hartan diru hori au- rrekontuan zegoen sartuta. Orain, aurrekontua prestatu da, onartu egin da eta handik hilabetera gerakinetatik di- ru atera da ikastolari ema- teko. Diruaren kontra ez gaude baina bai egiteko mo- duaren kontra.

Hala ere, argitu ez genuela kontra bozkatu, abstenitu egin garela. Bi alderdik alde bozkatu zutelak jakinda, erra- zena, alde bozkatzea zen. Ez zitzaigun hori zuzena irudi- tzen, guk nahi ez genuen be- zala gerakinetatik eman be- har baitzen dirua.

Uranga: Inbertsio errealak aurtan 367.582 euro izan dira. Ikastolari aurrekontu- tik ordaindu izan bagenio, aurtan ez genuke inbertsio- rik izango.

Jaiak direla-eta, be- heko kale bat ixtea ondo dago, baina Goiko Kalen bizi dira seme-alabak eta sena- rra makuluekin dau- kat. Baimen bidez, gutxienez, autoz pasa ahal izatea ondo le- goke.

Joxe Anjel: Oriotar askok diote Goiko Kalekoa arazoa dela. Gai horri heldu eta so- luzioa eman behar zaio, nola edo hala.

Emeterio: Amaia buru-bela- rri ibili zen horretan eta ho- rrelako arazo puntualentzat irtenbideak landu ziren. Hortaz, Udalera iristen di- ren arazoak konpondu dai- tezkeela pentsatzen dut.

daudelako eta oinezkoie le- hentasuna eman behar zaie- lako. Baina egia da horrelako neurriak, normalen, tra-umatikoak direla herri asko- tan. Etorkizunean, ziurre- nik, oinezkoen lehentasuna bermatuko da, bide horre- tan goaz. Egia da traumati- koak direla horrelako alda- ketak eta, pixkana-pixkana- ka, egin behar direla. Akaso lehenengo neurria horrek izan behar du, asteburuetan jartzea edo jai-egunetan, eta pixkanaka joan aldaketa osoa egiten. Hori bai, kasu puntualei erantzuna eman behar zaie eta baimenak eman behar dira; beraz, az- tertu eta irtenbidea bilatu

Berdintasun Plana 2016 urtean amaituko da eta, ta- malez, ez dago elkarre bat horrekin lan egiteko. Hor dago, norbaitek hartu zain. Aurrekontuan diru kantita- te bat bermatuta dago ekin- tzetarako eta norbaitek jar- dun hori bultzatu ahal izate- ko, baina berdintasuna plana horgelditu da.

Zaharren eguneko zen- troan terraza bat jarri da, inongo kosturik eduki ez duena. Lehen lau pareten ar- tean zeuden, ezin zuten ate- ra. Naike arduradunak esan digu oso pozik daudela, airea eman dielako obrak.

Berdiruz proiektua au- rrrera aterako dugu, irailean



beharko zaio.

Miriam, ongizatearen inguruan zer pauso eman dira?

Uranga: Ongizatearen ingu- ruan hainbat alor daude, guztiak desberdinak. Diru laguntzak hasiera batean Lanbidetik kudeatzen ziren, eta, orain, Zarautzen egiten da hori. Ongizate komisio guztietan ikusi den egoera zen, ongizateko diru lagun- tzak bikoiztu egin dira. Diru laguntzak jasotzen dituen pertsona kopurua bikoiztu egin da, eta hori ez da seinale ona.

ekingo diogu horri. Berdin-

berdinak taldeko jendeare- kin jaio da, baina herriko jende gehiagok hartuko du parte. Hiru alderdien babes- du proiektuak eta gauza be- rri baten hasiera dela uste- dut. Boluntario sare bat sor- tuko dute jendeari laguntze- ko. Ezgaituak, umeak... ai- sialdiarekin egongo da lotu- ta; izan ere, hezkuntzak lagunduko dien pertsona bat jartzen die, baina, esko- laz kanpoko jardueretan, musika eskolan adibidez, boluntarioak izango dituzte laguntzen.



Aldaketa bat egongo da aurrerantzean ongizatean, teknikari bat jubilatuko egingo baita. Eta, kexa zehatzak egon direnetan teknikariengana jo dugu arazoari konponbidea bilatzeko.

Gizarte zerbitzuetan, egindako lan gehienak Aldundiaren edo Eusko Jaurlaritzaren eskumenekoak dira. Udalak baditu beste eskumen batzuk, eta behin eta berriz aipatzen duzuen asmoa da herritarrak entzutea eta zerbitzu zuzena eskaintzea. Nik uste dut Euskal Herrian ez dagoela 5.800 biztanleko beste herririk bizigizarte langile dituenik. Hori bai dela Udalaren eskumena: pertsonalaren kontratazioa.

Uranga: Teknikariaren beharra aurreikusita dago, gabezia detektatuta daukagu. Ez da hain erraza jende berria kontratatzea, horretan eskuak nahiko lotuak daukagu. Egungo teknikariak ez du nahi legealdia amaitu arte lanpostua utzi, eta, guri, erabaki horiek hurrengo legealdian ongizateaz arduratuko den pertsonak hartzea iruditzen zaigu bidezkoena.

Nik ongizate mahai bat eratzea beharrekoa ikusten dut. Ikastetxeak, Caritas... hainbat elkarte bildu gauza horiek guztiak bultzatzeko. Elkarlan bat egin behar dute beren artean herriak dituen arazoak detektatzeko. Oso problema delikatuak dira, horrelako asko etortzen zaizkigu. Lan asko egin behar da esparru horretan, ikusten ez den lan asko. Nire ustetan erabateko aldaketa ekarriko du teknikari berriak. Administrazioan, jada, ezarria zegoen, lan aldi erdian.

Miriamentzat. Zein helbururekin eta zenbateko kostuarekin jarri dira edukiontzien inguruan apaingarri horiek? Jarrita dauden bezala errepidera ateratzea behar izaten da zakarra botatzeko.


Uranga: Merkatari bideratutako diru laguntza batetik egin da, azoka gunean hobetze aldera. Normalean azoka guneak merkatu itxura izaten dute eta diru laguntzak itxura hori hobetzeko eman ziren. Azoka bi guntan kokatzen da herrian, plazan eta Arkaitz aldean.

Zabor puntua moilara eramanez eta Zarautzik barrena etortzen zareneko argazkia zaborte guztia zenez, turismo aldetik eta herria saltzeko erakargarria ez zitzagunez iruditzen, apaintzea erabaki genuen. Autoportanteak dira, hau da, erabakitzen bada zabor ontziak mugitu egin behar direla, apaingarriak ere mugitu daitezke. Azkenean, inbertsio bat da, beharrez gero beste erabilpen bat ematea ahalbidetzen duena.

“Ongizate mahaiak eratzeko beharra ikusten du. Elkarlanean aritu behar dute herriak dituen arazoak detektatzeko. Oso problema delikatuak dira”

MIRIAM URANGA

Eremu trantsitatuenak dira plaza eta Arkaitz ingurua. Lehen Antillarekin egin zen bezala, irudia hobetzeko ekintzak, orain bi toki horietan egin da.



Kostua 19.000 eurokoa izan da eta diru laguntza 13.000 euro eta pikokoa jaso genuen.

Zaborra botatzeko, ez nekien Ikastola aurreko gunean errepidera ateratzea behar zela. Ez naiz konturatu. Kexa hori edukiz gero idatziz jarri eta aparejadoreak eta teknikariak bermatuko dute segurua izatea.

Mugikortasunaren gaian, bizikletaz ibiltzen garenak asko gara. Legealdi honetan asko egin izana eskertzeko bada ere, zer iritzi duzue gai honen inguruan? Zer jarraipen egingo duzue?

Uranga: Diputazioko diruarekin dago eginda, gainera. Niri arkitektoak esaten dit Orion onartu den bidegorri sarea izan dela adostasun handiena izan duena eta ondo dagoen bidegorri sarea dela. Gure helburua aurrera pausoak ematea da, aipatutako sarea egitea.



Domingorena: Gu ez gaude erabat ados. Pentsatzen dugu hobekuntzak egon direla herrian, baina gaur egun nolabaiteko etendurak daukela. Ondorioz, ezin da zuzenean jarraitu hondartzatik herriraino eta porturaino.

Pentsatzen dugu, adibidez, Arrantzale kalean ez zela errepidean egin behar bidegorria, baizik eta espaloian.

Bizikleta ez da aisialdiarekin lotu behar. Garraiobidea da eta bermatuta egon behar du etendurik gabeko bidea egongo dela, denbora guztian bidegorrian ibiltzen joan zaitezkeela. Guk hor in-tzidentzia egingo dugu eta hausnarketa arrazionala egin nahi dugu.

Iribar: Ados nago Irmak esan duenarekin. Guk, Plan Orokorrean ere planteatu dugu herritik tren estaziorako etendura horri irtenbide bat bilatzea –zubitik estaziorako bideari– eta baita Kaiako eremuari ere konponbidea bilatzea.



Muntón etxe bat egiteko zuloa dago -aparkalekua dena gaur egun-. Zulo handia da eta aparkalekua egoera txarrean dago. Bertako bizilagunok ezin dugu leihorik ireki hautsarengatik. Zein egoeratan aurkitzen da proiektu hori? Aparkalekuaren zorua ezin da aldatu?

Iribar: Bere garaian, eta baita gaur egun ere, aparkatzeko arazoa dago herrian. Disuasio neurri moduan jarri zen aparkaleku hori, behin behineko irtenbide moduan. Hor egunen batean etxea eraikiko da, babes ofizialeko etheen eremua da hori-eta.

“Behin behineko irtenbide moduan jarri zen Muntón eremuan aparkaleku hori”

EMETERIO IRIBAR

Legealdi honetan Beñat alkatea kudeatzen aritu da, ea



Joxe Anjel, Urola Kostako Hitzak egindako elkarrizketan esan zuen Motondoko lurrrak Udalarenak direla eta hondartza inguruko salerosketako diruarekin erosi zela. Aurrerago Motondon edifizioen bat egiteko aukera erreserbatzea iradokitzen duzula iruditu zitzaidan. ZEC izendapena du Motondo eta lehenagoratzeko plana ezarria dauka. Eusko Jaurlaritzak bideratu behar du plan hori, bere eskumena da-eta. Argitzea nahiko nuke zertarako erreserbatu nahi duzun Motondo.

Zaldúa: Motondo hondartza inguruko salerosketaren diruarekin erosi zen. Nire ustez, Motondo Udalarena izanda erreserbatu egin behar da biharko egunean zerbait egiteko han. Zer? Ez dakit zer. Baina hondoratzea iruditzen zait lursoro bat galtzea alfer-alferrik. Ni ez naiz horren aldekoa.

Europatik 250.000 euro-

“Motondo hondoratuz gero, betiko galduko litzateke. Beti ari gara itsasoari lurrrak kentzen, eta horkoa bere horretan utzi ordez, proiektua hondoratzea da”

JOXE ANJEL ZALDUA

ko diru laguntza etorri zen. Udalak beste hainbeste jarritz gero, eta horri milioi erdi bat gehituz gero, egin zitekeen eta hori guztia Aranzadik kudeatuko luke.

Aranzadik, normala den bezala, dirua berak kudeatzen duenez, Motondo hon-

doratzeke plana egin du. Ni ez nago horrekin ados, baina horrek ez du esanahi ez denik hori egingo.

Herriaren onura da lurzoru hori. Jaso egin beharko zen hemendik urte batzutura zerbaitetan ibiltzeko. Baina, hondoratuz gero, betiko galduko litzateke. Beti ari gara itsasoari lurra kentzen, eta horkoa bere horretan utzi ordez, proiektua hondoratzea da. Esan bezala, ni ez nago ados, baina horrek ez du esan nahai egingo ez denik.

“Motondon berreskuratzea da egin daitekeen gauza bakarra”

IRMA DOMINGORENA

Domingorena: Hemen ez dago beste aukerarik, Joxe Anjel, ezinda ezer egin.

Motondon egin daitekeen gauza bakarra berreskuratzea da, naturari naturarena dena bueltatzea. Legeak horrela dio, etorkizunean ikusi daitekeen neurri bakarra da berreskurapena.

Joxe Anjel, aurreko agintaldian bozka gehien jasota, itzalean egon zarete. Orainek eta EH Bilduk ituna egin zuten. Orain nola ikusten duzue egoera?

Zaldúa: Esan beharra dago EAJ-PNV alderdiak hori ez duela sekula egin Orion. Herri honetan agintzen egon dena alderdi bozkatuena izan da orain arte, herritarrek gehien bozkatu dutena. Iruditzen zait galdera horri ez dizudala nik erantzun behar, baizik eta paktua egin zutenei – Orain eta Orioko EH Bildu – egin beharko dizuela.



Ituna Orioko EH Bil-duk eta Orain plata-formak egin zuten, EAJk Udala kudeatzeko zituen formak ez zirela zuzenak iri-tzita. Orain ituna man-tenzen jarraituko al duzue? Eta formak ho-betzeko zer egin duzue?

Iribar: Uste dut ez genizuela alkatetza lapurtu. Orainek eta Bilduk herritarren gehiengoa zuten, eta horren ordezkari-tza kudeatu dugu azken lau urtetan, zilegita-sun osoarekin.

Lau urte hauetan emai-tzak ikusi dira. Aurrekon-tuak gehiengoz onartu dira Orainen eta Bilduren bidez, beraz, gehiengo batek Udal honen norabidea aldatu nahi bazuen, zer zilegitasun falta dago hor? Praktikan, gainera, ikusi da marra mo-duko bat jarri zenutela, neu-rrri handi batean, zuek parte ez izateko. Eta, niretzat, par-te hartze ereduari, forme-tan... esparru askotan izuga-rrizko aldaketa egon da.

“Orainek eta Bil-duk herritarren gehiengoa zuten, eta horren ordez-karritza kudeatu dugu azken lau urtetan”

EMETERIO IRIBAR

Uranga: Nik ere ez nuke la-purtu hitza erabiliko. Egia da zuek bozka gehien zenituz-tela, baino hau galdu eta ira-bazi bat da; botoak galdu edo irabazi egiten dira, bakoit-zak jakingo du zergatik ira-bazten dituen eta zergatik galtzen dituen.

Guri iruditzen zaiguna da orain aukera dagoela, hau-teskunde hauetan, EAJ go-bernua dagoenean zer esti-lo dagoen eta Bildu dagoene-an zein dagoen jakiteko. Lehen beti EAJko eredia ezagutzen zen. Baina, orain, herritarrek hautu librea egokiago egiteko aukera daukate, bakoitzaren for-mak zein diren ikusi baita.

Kritika asko egiten di-tuzue, baina zer auto-kritika egiten duzue?

Zaldia: Gu ez gara gober-nuan egon, beraz, ez dakit zer autokritika egin behar dugun. Autokritika agintzen egon direnek egin beharko dute. Formak iruditzen zai-gu okerrera joan direla.

Iribar: Ez izatea gaitasuna hondakinen sistema ados-tua lortu ahal izateko. Arazo handia da, denok daukagu arduraren istorio honetan. Hel-burua izan beharko luke nat-uraren ondareari eta ohitu-rra onei begira, guztiok elkar-banatu-tako zer bait egitea.

Guk alor honetan gure eran-tzukizuna hartuko genuke.

Uranga: Zaborraren gaian ere guk autokritika egiten dugu. Pena handia daukagu, zaborraren gaiari buelta gehiago eman behar zitzaiz-kion. *Zero zabor* mahaia de-segin zen eta ez genion be-rriz heldu gaiari. Nik uste dut heldu egin behar diogu-la, eta indartsu, gainera.

Formak akaso ez dira beti egokienak izan eta hor ere hobetu egin behar dugula pentsatzen dut. Herritarrek udaletxera, badirudi, beldu-rrarekin-edo gerturatzen direla. Ez dira parekotasun batean sentitzen. Jendeare-kin gertutasuna bermatu behar da, bai ala bai.

“Ostalaritza elkar-tea sortu ez izanak pena ematen dit. Turismo teknika-riaren postua ateratzen denean, bere erronka na-gustietako bat hori izango da”

MIRIAM URANGA

Gauzak egiten direnean gar-dentasun gehiagorekin jo-katu behar da: kostua esan, zer egingo den, zergatik... Orain, adibidez, ludoteka egite-za goaz eta bizilagunei

lehenago esan behar genien guztia. Berak kezkatzen eto-rrri baino lehen joan behar dugu guk berengana.

Ostalaritza elkarteak sortu ez izanak pena ematen dit. Orio Estilora logoa berei uztea erabaki zen, eta turismo tek-nikariaren postua ateratzen denean, bere erronka naga-sia izango da ostalaritza mugitzea. Horretarako el-karteak sortzea ezinbestekoa da.

Partaidetzagehiago susta-tu ez izanak ere pena ematen dit. Positiboa izan dena *Orio lagunkoia* izan da. Kafe bat hartzen elkartu ginen hel-duenekin eta gauza pila bat kontatu zizkiguten, eta hor-tik gauzak atera ziren. Parte hartzea sustatzeko modua aldatu egin behar dela uste dut, adibidez, zahar-etxera joan eta kafe bat hartzeak beren iritziak jasotzeko ego-kia dela uste dut.

Alkateak hor egon behar du, gertu. Udaletxe-ari gau-zakesan behar zaizkio, ez de-lako guztira iristen; eta he-rritarrek eskatu egin behar duzue, horretarako gaudela-ko gu.

Ongizatean nik uste dut gehiago egin behar dela, nahiz eta Noemik lan asko egin duen eta eskertu beha-rraren nagoen. Pena eman dit bera zerrendan horren urrun ikusteak.

HERRITARROK garaile!

EMAN BOTOA
ehbildu



Araoa EH Bilduko taldea



Orioko EH Bilduko taldea

Ostirala 15 Orioko hondartza

Aribar Portuko Auzait, Piliiky eta Herriko plazan artean
19:00etan hasita bizikiletaz ekitaldi ibiltaria

Ostirala 22 Orioko plazan

29,30etan festa giroan.

herritarron. garaia

EH BILDUREKIN herritar guztiok gara garaile,
Maiatzaren 24an eman botoa EH Bilduri. Herritarrok garaile

ORIO EKINEZ EGINA



EMAN BOTOA



AIA EKINEZ EGINA



EMAN BOTOA



eaj-pnv.eus EUSKADI HAZI ARAZI